Hezkidetza-proiektua duten eta ez duten ikastetxeetan bi sexuei ezaugarri fisikoak eta nortasuna berdin esleitzeari dagokionez, honako hau ikus daiteke: LHko 4. mailan bezala, bilakaera positiboa izan da ikastetxe mota guztietan. Hala ere, aurreko etapan gertatzen den bezala, "Abusutzailea izatea" bezalako ezaugarri batzuk oraindik nahiko urrun daude berdintasun-parametroei dagokienez. Beste batzuek, "Maitekorra izatea" kasu, emaitza hobeak dituzte DBHko 2. mailan. Adierazle batzuetan hezkidetza-proiektua duten ikastetxeak zertxobait hobeak badira ere, proiekturik gabeko ikastetxeak izan dira hobekuntza handiena izan dutenak ED17tik.

**5.2.1.2.d. grafikoa: DBHko 2. maila. ED17-ED19. Ezaugarri fisikoak eta nortasun-ezaugarriak bi sexuei neurri berean esleitzearen bilakaera, ikastetxeak hezkidetza-proiektua duen ala ez kontuan hartuta.**



Lehen Hezkuntzako 4. mailan gertatzen zen bezala, ezin da ukatu HBP/I mesedegarria denik ikasleen garapenean; hala ere, emaitzek erakusten dute ikasle guztiek dutela ezaugarri fisikoen eta nortasunaren gaineko gero eta ikuspegi estereotipatu txikiagoa.

## 5.2.2. Lanbideen esleipenaren bilakaera

Ikasleei aplikatutako testuinguruko galdera-sortan, bi etapetan eta hiru edizioetan (ED15; ED17; ED19), gizonen, emakumeen edo biei neurri berean hainbat lanbide esleitzeko eskatu zitzaizkien.

Azterlan askok erakusten dute lanbideen pertzepzioak eragin handia duela ikasleen etorkizuneko hautaketan; hau da, lanbidea beren sexuarekin bat ez datorrela sentitzeak berekin ekar lezake lanbide horretan probabilitate handiagoz jardun nahi ez izatea edo horretan aritzeko aukerarik ez izatea. Pertzepzio hori lotuta dago ikasleen autokontzeptuarekin eta autokonfiantzarekin.

Atal honetan gizarteen oso estereotipatuak dauden lanbideei buruz galdetu zitzaizkien; horietako bat sexu bakarrekoa dela uste izatea egoera nekez alda daitekeelaren sintoma da.

**Galdera:**“Adieraz ezazu ondorengo lanbideetatik zeintzuk diren, zure ustez, egokiagoak neskekentzat, zeintzuk diren egokiagoak mutilentzat edo zeintzuk diren berdinak neskekentzat eta mutilentzat”.

Lanbideak	Emakumeak	Gizonak	Biak
A. Elektrizitatea	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>
B. Erizaintza	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>
C. Zientzia-ikerketak	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>
D. Garbiketa	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>
E. Abokatutza	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>
F. Ingeniaritza	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>
G. Medikuntza	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>
H. Dantza	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>
I. Enpresen zuzendaritza	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>
J. Sukaldaritza	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>
K. Kirolaria	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>
L. Ile-apainketa	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>
M. Irakaskuntza	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>


Lanbideen esleipenari dagokionez, ikasleak zenbat eta nagusiagoa izan, orduan eta ikuspegi estereotipatu txikiagoa dute lanbideei buruz: lehen Hezkuntzako 4. mailako ikasleen artean, 5 lanbidetan sexu bien aldeko erantzunen % 75 gainditzen da, neurri berean; DBHko 2. mailako ikasleen artean, berriz, proposatutako 13 lanbideetatik 12tan. Bi etapetan hobekuntza handia egon da ED15eko datuekin alderatuta.

Ezaugarri fisikoak eta nortasun-ezaugarriak esleitzearekin gertatzen den bezala, oraindik ere ikasleen ehuneko handi batek, Lehen Hezkuntzan zein DBHn, lanbide batzuk desberdin esleitzen dizkie neskei eta mutilei: dantza, ile-apainketa, argiketaria izatea edo ingeniaritza.

Hezkidetza-proiektua duten ikastetxeetako Lehen Hezkuntzako 4. mailako eta DBHko 2. mailako ikasleek ikuspegi zertxobait estereotipatuagoa dute lanbideei dagokienez.

### 5.2.2.1. Lehen Hezkuntzako 4. maila

**5.2.2.1.a. grafikoa: LHko 4.maila. ED15-ED17-ED19. Lanbideak bi sexuei neurri berean esleitzearen bilakaera.**




\* Bi hamartar hartu dira kontuan zenbaketa orokorrerako.


Ikusten denez, aldatu egin da ikasle horien lanbideen pertzepzioa ED15etik aurrera; izan ere, gora egin du bi sexuatarako lanbideak berdin esleitzen dituzten ikasleen ehunekoak, esleipen estereotipatuagoa ematen dietenen aldean. Alde horretatik, aldaketa handiena izan duten lanbideak dantza (% 29 aldea ED15etik ED19ra), ile-apainketa (% 28), elektrizitatea (% 24) eta garbiketa (% 23) izan dira.

Dena den, lanbideek gizonentzat zein emakumeentzat onak izan behar dutela uste dutenen erantzunak aztertuz gero, ikus daiteke genero-estereotipoak mantendu egiten direla ikasleen ehuneko batean. % 33k uste du dantza eta ile-apainketa batez ere neskeentzat direla, % 30ek uste du elektrikariak mutilak bakarrik izan daitezkeela edo % 22k uste du ingeniari-txostera mutileentzat dela.

**5.2.2.1.b. grafikoa: LHko 4.maila. ED17. Lanbideen pertzepzio estereotipatua.**




5.2.1.2.b. grafikoa: LHko 4.maila. ED19. Lanbideen pertzepzio estereotipatua.



Hezkidetza-proiektu bat izan duten ikastetxeetan matrikulatutako Lehen Hezkuntzako 4. mailako ikasleek lanbideen esleipenari buruz erakutsi dituzten emaitzek esan dezakete ikuspegia ez dela hain estereotipatua lanbide batzuei dagokienez (ikus *Ile-apainketa*, *Dantza*, *Elektrizitatea* eta *Garbiketa*, adibidez). Gainera, ED17ko eta ED19ko emaitzak alderatzean, lanbideak bi sexuei berdin esleitzen zaiela gero eta gehiago ikusten da.

5.2.2.1.d. grafikoa: LHko 4.maila. ED17-ED19 . Lanbideak bi sexuei neurri berean esleitzearen bilakaera, ikastetxeak hezkidetza-proiektua duen ala ez kontuan hartuta.




**5.2.2.2. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 2. maila**

DBH 2ko lanbideen esleipenaren emaitzen bilakaera honako hau izan da: Lehen Hezkuntzako 4. mailako grafikoarekin alderatuta, DBH 19ko DBHko 2. mailako ikasleen erantzunetan pertzepzio askoz ere berdintsuagoa ikusten da lanbide guztiei dagokienez.

\* Bi hamartar hartu dira kontuan zenbaketa orokorrerako.


**Gráfico 5.2.2.2.a.: DBH2. ED15-ED17-ED19. Lanbideak bi sexuei neurri berean esleitzearen bilakaera.**



13 lanbideetatik 11tan, ikasleen % 80k baino gehiagok uste du gizonak zein emakumeak sar daitezkeela lanbide horietan.


ED17an, ikasleek begirada sexista zuten, besteak beste, *Dantza* (% 35ek neskontzat bakarrik ikusten zuten, eta % 1ek mutilentzat) edo *Ile-apainketa* (% 34k neskontzat eta % 1ek mutilentzat) lanbideetara. Alderantziz, DBHko 2. mailako ikasleen % 42k uste zuen gizonak bakarrik izan daitezkeela argiketariak, eta % 25ek Ingeniaritza gizonaek bakarrik egotzen zien.

**5.2.2.2.b. grafikoa: DBHko 2. maila. ED17. Lanbideen pertzepzio estereotipua.**




ED19an, DBHko 2. mailako ikasleek ikuspegi sexista dute lanbide jakin batzuekiko, hala nola *Dantza* (% 22k neskontzat bakarrik ikusten dute, eta % 1ek mutilentzat) edo *Ile-apainketa* (% 19 neskontzat eta % 1 mutilentzat). Alderantziz, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasleen % 26k uste du gizonak bakarrik izan daitezkeela argiketariak (ED17an lortutakoa baino askoz gutxiago), edo % 16k *Ingeniaritza* gizonen soilik egotzen die. Pertzepzio horrek bilakaera positiboa izan duen arren, oraindik ere lana dago egiteko.

5.2.2.2.b grafikoa: DBHko 2. maila. ED17. Lanbideen pertzepzio estereotipua.



Aipatzekoa da emakumeei esleitutako lan gehienak gizonen soilik esleitutakoak baino ordainsari eta ospe txikiagokoak direla.

5.2.2.1.c. grafikoa: DBHko 2. maila. ED17-ED19. Lanbideak bi sexuei neurri berean esleitzearen bilakaera, ikastetxeak hezkidetzaproiektua duen ala ez kontuan hartuta.



DBHko 2. mailako ikasle guztiek, ikastetxeak hezkidetzeta-proiekturen bat badu edo ez badu, emaitzak hobetu dituzte, ED17tik ED19ra. Hezkidetzeta-proiektua duten ikastetxeetako ikasleek lanbide batzuk "bi sexuei" ehuneko handiagoan esleitzen dizkiete, proiekturik gabeko ikastetxeko gainerako ikasleek baino.

### 5.2.3. Gizonek eta emakumeek bizitzan izango dituzten aukeren esleipenaren bilakaera

Esleipenen aurreko azterketetan ikusi ahal izan denez, ezaugarri fisikoei eta nortasun-ezaugarriei edota lanbideei lotutako estereotipoen pertzepzioa hobetzen ari bada ere, oraindik ere badago pertzepzio hori, neurri handiagoan edo txikiagoan. Hori dela eta, interesgarria da jakitea gizonek eta emakumeek bizitzan izan ditzaketen aukerei dagokienez ere zer neurritaraino proiektatzen den pertzepzio hori etorkizunerantz.

**Galdera:** "Adieraz ezazu helduaroan, zure ustez, norik izango dituen aukera handiagoak hurrengo egoera hauek betetzeko".

Aukerak	Emakumeek gehiago	Gizonek gehiago	Berdin
A. Ikasteko	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>
B. Lana aurkitzeko	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>
C. Soldata ona irabazteko	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>
D. Enpresa baten nagusia izateko	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>
E. Politikan botere handiko postua izateko (DBH2n soilik)	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>
F. Etxean atsedena hartzeko	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>
G. Seme-alabekin harreman afektiboak edukitzeko (DBH2n soilik)	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>
H. Bikotekidearekin gehiago egon nahi ez dutenean, harremana apurtzeko (DBH2n soilik)	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>
I. Zoriontsuak izateko	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>
J. Bikotetik aparte lagunak edukitzeko (DBH2n soilik)	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>

ED19an, bi sexuei bizitza osoko aukeretakoa esleitutako ehunekoek gora egin dute ED15eko erantzunekin alderatuz gero. Hala ere, Lehen Hezkuntzako 4. mailako ikasleen % 25ek baino gehiagok eta DBHko 2. mailako ikasleen % 30ek uste dute gizonek eta emakumeek ez dituztela aukera berberak izango "Etxean atsedena hartzeko", "Enpresa baten buru izateko" edo "Soldata ona lortzeko", adibidez.

Lehen Hezkuntzan ia ez dago alderik Hezkidetzeta-Proiektua duten ikastetxeetako ikasleek egiten dituzten esleipenetan. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, gizonei eta emakumei aukerak berdin esleitzen dizkieten HBP/I duten ikastetxeetako ikasleen ehunekoa pixka bat handiagoa da.




### 5.2.3.1. Lehen Hezkuntzako 4. maila

Hurrengo grafikoan ikus daitekeen bezala, Lehen Hezkuntzako 4. mailako ikasleek, ED19an, etorkizunean aukera gehiago izango dituztela uste dute, bai gizonek bai emakumeek bizitzan zehar izan ditzaketen aukeretan, ED15en eta ED17an adin bereko ikasleek adierazitakoarekin alderatuta. Nabarmentzekoa da ED19ko ikasleek portzentajezko 18 puntutan hobetu dutela gizonek zein emakumeek etxean atsedean hartzeko duten berdintasunezko pertzepzioa.

\* Bi hamartar hartu dira kontuan zenbaketa orokorrerako.


5.2.3.1.a. grafikoa: LHko 4. maila. ED15-ED17-ED19. Bizitzako aukerak bi sexuai neurri berean esleitzearen bilakaera.



ED17an (5.2.3.1.b. grafikoa), ikasleek, etorkizunean, "Enpresa batean botere-postuak lortzea" (% 25ek uste zuen aukera gehiago zituztela gizonek eta % 7k emakumeek) edo "Soldata ona lortzea" (% 24k eta % 6k, hurrenez hurren) ikusten zuten gizonen alde. Emakumeek gizonen baino "Ikastea" aukera gehiago zutela uste zuten (% 13 eta % 4, hurrenez hurren).


Garrantzitsua da nabarmentzea gizoni esleitzen zaizkien aukerek gizarte-prestigioa eta baldintza ekonomiko onak lortzea ahalbidetzen dutela; emakumei esleitzen zaizkienek, berriz, lotura handiagoa dute garapen pertsonalarekin. Datu horiek bat datoz aurreko atalean lanbideak sexuei esleitzeari buruz ikusitakoekin.

5.2.3.1.b. grafikoa: LHko 4. maila. ED17. Bizitzako aukeren pertzepzio estereotipatua.




ED19an (5.2.3.1.c grafikoa), etorkizuneko itxaropenei buruzko ikuspegi estereotipatuak mantentzen dira, batez ere esparru profesional edo publikoarekin lotutakoak. Lehen Hezkuntzako 4. mailako ikasleek, etorkizunean, "Soldata ona lortzea" (% 23k uste du aukera gehiago izango dituztela gizonak eta % 5ek emakumeek) edo "Enpresa batean botere-postuak lortzea" (% 24k eta % 5ek, hurrenez hurren) ez dira hain berdintsuak izango gizonen alde. Aldiz, eta ED17ko ikasleen antzera, uste dute emakumeek gizonak baino aukera gehiago izango dituztela (% 12) "Ikastea" (% 4). Horrek iradoki lezake ikasleek ez dutela lotzen soldata on bat lortzea edo nagusi izatea ikastearekin. Hobekuntza txiki bat nabari da ikasleek dituzten aukeren pertzepzioan.

5.2.3.1.c. grafikoa: LHko 4. maila. ED19. Bizitzako aukeren pertzepzio estereotipatuak.



Grafiko honetan, bizitzan zehar aukeren pertzepzioari buruzko galderari erantzun dioten ikasleen ehunekoak agertzen dira, galdera horri erantzun dioten ikasleen sexuaren arabera.

5.2.3.1.1.d. grafikoa : LH4. ED19. Bizitzako aukeren pertzepzio estereotipatuak, ikaslearen sexuaren arabera.




Alde nabarmenak ikusten dira "Ikastea" ren berdintasunezko pertzepzioan; mutilen % 67k eta nesken % 33k uste dute gizonak izango dutela horretarako aukera gehien etorkizunean. Antzeko zerbait gertatzen da "Zoriontsua izate"rekin; mutilen % 69k uste du beraiek izango dutela aukera hori gehien, eta nesken % 31k ostera. Garrantzitsua da kontuan hartzea ehuneko horiek lortu direla gizonak "Ikastea" eta "Zoriontsua izatea" aukera gehiago dituztela uste duten ikasleen artean, eta % 4 baino ez direla. Azkenik, nabarmendu behar da portzentajezko 8 eta 6 puntuko aldea dagoela "Lana aurkitzea" eta "Enpresa batean botere-postuak lortzea" aukeretan, non, berriz ere, mutilek neskek baino aukera gehiago izango dituzten hori lortzeko.

Emakumeek beraiek helburu batzuk lortzeko aukera gutxiago dituztela uste izateak adierazten du emakumeek ez dutela beren buruarekiko konfiantzarik, eta horrek eragin negatiboa duela beren etorkizunean.

ED17an, hezkidetzaproiektua zuten ikastetxeetako Lehen Hezkuntzako 4. mailako ikasleek ez zuten hain ikuspegi estereotipatua bizitzan zehar aukerak esleitzeari dagokionez. ED19an ez dago desberdintasunik ikastetxeen artean, hezkidetzaproiektu bat gauzatu ala ez. Uler liteke gizartea dela, oro har, emaitzen hobekuntzan eragiten ari dena.

**5.2.3.1.e. grafikoa: LH4ko 4. maila. ED17-ED19. Bizitzan zehar bi sexuei ematen zaizkien aukera berdinen bilakaera, ikastetxeak hezkidetzaproiektua duen ala ez kontuan hartuta.**




**5.2.3.2. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 2. maila**

Jarraian agertzen den grafikoan ikus daitekeenez, DBHko 2. mailako ikasleen iritzien artean, Lehen Hezkuntzako 4. mailan ikusten zen bezala, bizitzan zehar aukerak ematen dituzten esleipenak ere hobetzen dira, gizonentzat zein emakumeentzat "Soldata ona lortzea" izan ezik (-3 portzentaje-puntu), horietan pertzepzio horrek okerrera egiten baitu ED15etik aurrera.

\* Bi hamartar hartu dira kontuan zenbaketa orokorrerako.


**5.2.3.2.a. grafikoa: DBHko 2. maila. ED15-ED17-ED19. Bizitzako aukerak bi sexuei neurri berean esleitzearen bilakaera.**




ED19an, gizonek zein emakumeek bizitzan zehar aukera berdinak izango dituztela uste duten ikasleen ehuneko handiena "Zoriontsu izatea" (% 94) eta "Bikotekideaz bestelako lagunak izatea" (% 91) da.

Azterketa hori gizonei eta emakumei banaka emandako esleipenekin egiten denean, honako hau ikusten da: ED17ko ikasleen % 36k eta DBHko 2. mailako % 39k uste zuten "Enpresa batean botere-postuak lortzea", "Soldata ona izatea" edo "Politikan botere-postu bat lortzea" gizonentzat emakumeentzat baino errazagoak izaten jarraitzen zutela. Hala ere, ikasleen % 24k uste zuen emakumeek aukera gehiago zituztela "Seme-alabekin harreman afektiboak izateko".

**5.2.3.b. grafikoa: DBHko 2. maila. ED17. Bizitzako aukeren pertzepzio estereotipatuak.**



**5.2.3.2.c. grafikoa: DBHko 2. maila. ED19. Bizitzako aukeren pertzepzio estereotipatuak.**




ED19ri dagokionez, DBHko 2. mailako ikasleen % 30ek eta % 37k uste dute "Enpresa batean botere-postu bat lortzea", "Soldata ona izatea" edo "Politikan botere-postu bat lortzea" gizonentzat emakumeentzat baino errazagoak izaten jarraituko dutela. Aldiz, ikasleen % 17k uste du emakumeek aukera gehiago izango dituztela "Seme-alabekin harreman afektiboak izateko", gizonen % 3ren aldean.



ED17an, ikastetxe mota guztietako ikasleek, hezkidetzeta-proiektua izan ala ez, antzeko ikuspegia zuten bizitzan zehar aukerak esleitzeari dagokionez. ED19an hobekuntza orokorra dago eta, alde sotila ikusten da hezkidetzeta-proiektua duten zetroen alde. Hala ere, oraindik botere-postuak lortzea edo lana aurkitzea nahiko estereotipatuta daude. Uler liteke gizartea dela, oro har, emaitzen hobekuntzan eragiten ari dena.

5.2.3.2.e. *grafikoa*: DBHko 2. maila. ED17-ED19 Bizitzan zehar bi sexuei ematen zaizkien aukera berdinen bilakaera, ikastetxeak hezkidetzeta-proiektua duen al ez kontuan hartuta.



### 5.3. Ikasleen arteko harremanen bilakaera

Zalantzarik gabe, hezkuntza-sistemaren testuinguru-azterketak genero-ikuspegitik aztertu eta sakondu behar ditu harreman pertsonalak. Dokumentu honetan genero-indarkeriako harremanak jasotzen dira, bai ikusten duenaren ikuspegitik baita biktimaren lekutik ere.

Emakumearen aurkako indarkeriaren eta etxeko indarkeriaren aurkako prebentzioari eta borrokari buruzko Europako Kontseiluaren Hitzarmenaren arabera (Istanbulgo Hitzarmena), 2011ko maiatzaren 11n sinatua (BOE6-6-2014), 3. artikuluko d) atalean "genero-arrazoiengatiko emakumeen aurkako indarkeria" honela definitzen da: emakume baten aurkako indarkeria oro, emakumea delako edo emakumeei neurritz kanpo eragiten dielako. f) atalean, "emakumea" terminoak 18 urtetik beherako neskek hartzen ditu barne.

ANAR (Arriskuan dauden Haur eta Nerabeentzako Laguntza) fundazioaren genero-indarkeriari buruzko 2018ko txostenean adierazten denez, bikotekidearen edo bikotekide ohiaren eskutik adingabe nerabe bat jasaten ari den genero-indarkeriari buruz ohartarazten duten 12 eta 18 urte bitarteko adingabeen deiak 443 dira (2018. urtea). Horietatik 18 Euskal Herritik etorritakoak dira. Biktimaren batez besteko adina 15,7 urtekoa da, 2017an baino pixka bat txikiagoa, orduan 16,1 urtekoa izan baitzen. 344 kasutan herritartasuna espainiarra izan zen. 299 deitan, erasotzailea mutil-laguna edo bikotekidea da, eta 144an, mutil-lagun ohia edo bikotekide ohia. Bestalde, ANAREK txat zerbitzua du 2017tik. Ordutik hona txata asko hazi da, eta 2020an 5 534 txatetara iritsi da, guztira 11 643 txat (2017-2020 aldia). Txat guztietatik 257 Euskal Autonomia Erkidegokoak izan dira. Txat bakoitzeko kontsulten % 40 baino gehiago adingabe baten aurkako indarkeria-kasuei dagozkie. Emakumearen aurkako Indarkeriaren Estatuko Behatokiaren XI. urteko txostenaren arabera

(2017), 459 dei jaso dira "Haurren eta Nerabearen Telefonoan", zuzeneko biktima emakume adingabea den genero-indarkeriako egoerei buruzkoak. Genero-indarkeriako egoerak eragindako adingabeen batez besteko adina 15,9 urtekoa zen.

Bestalde, aztertu beharreko beste indarkeria bat dago: LGBTIQ+ kolektiboaren aurkakoa. Nazio Batuek baieztatzen dutenez<sup>10</sup>, *"Indarkeria homofobiko eta transfobikoko ekintzengatiko salaketak munduko eskualde guztietan gertatzen dira, eta larzeria psikologikotik hasi eta eraso fisiko, tortura, bahiketa eta erailketaraino doaz, sexu-indarkeria nabarmenduz"*.

Eskola-eremuan berdinen arteko tratu txarrek edo bullyingak forma desberdinak hartzen dituzte. Tratu txarrak jasan dituen pertsonaren aurrean edo bertan ez dauden ekintzak izan daitezke; hitzezko arbuioaren, eraso fisiko edo sexualaren edo gizarte-bazterketaren bidez egin daitezke; pertsonaren aurkako ekintza zuzenak edo zeharkakoak egin daitezke objektuen, senideen edo lagunaren bidez; mehatxuen, beldurraren eta abarren bidez egin daitezke.

Eskola-jazarpena teknologia berrietara ere igaro da, eta *ciberbullying* edo *ziberjazarpena* deiturikoa sortu da. Horrek irainak, mehatxuak, intimitatearen edo osotasun pertsonalaren aurkako erasoak sare sozialen eta bitarteko teknologikoen bidez egitea eragin ohi du. Bullyinga edo eskola-jazarpena eta ziberbullyinga ez dira pentsa litekeen bezain antzekoak. Anonimotasunak, denboran irauteak, eragindako kaltea zuzenean eta berehala ez hautemateak eta Interneten, mugikorrean eta abarretan irudimenezko rola hartzeak arazo larri bihurtzen dute ziberbullyinga.

Espanian, azken datuen arabera, haur eta nerabeen aurkako ziberjazarpena % 65 hazi da azken bost urteetan. Eta emakumeen sexurako joera argia du. Indarkeria Birtualaren Txostenaren arabera<sup>13</sup>. "neskek eta nerabeek delitu zibernetikoak jasateko arrisku handiagoa dute" (SAVE the Children, 2019). Save the Children erakundeak Espainia osoko 400 gazteri 2019an egindako inkestaren arabera, inkestatuen hiru laurdenek baino gehiagok online indarkeria jasan dute haurtzaroan; % 47k, baita mota bat baino gehiago ere. Horietatik % 40 ziberjazarpena izan zen, 8 eta 9 urte bitartean lehen aldiz pairatu zutena, eta neurri handiagoan neskei eragiten diena. Gehienak lagunak edo eskolako kideak egin zituzten. Baimenik gabeko *sextingak* % 3,74ri eragin zion, gehienak 14 urte ingurukoak, batez ere irteten ziren haurren aldetik. *Sextorsioa* ere ikusi izan zen, kontrol eta indarkeria moduan bikotekideak eragindakoa<sup>13</sup>.

### 5.3.1. Ikasgeletako genero-indarkeriaren bilakaera, behatzen duten ikasleen ikuspegitik

Atal honetan genero-indarkeriak ikasgelan izan duen bilakaera aztertzen da, ED15en eta ED17an. ED19an ez zen galdetegi hori egin, eta, horregatik, ezin izan da konparazio hori egin azken edizio horrekiko. Ikasleek alegatzen dituzten arrazoietako batzuk aztertuko dira, jokabide sexistei dagokienez, bai eta jokabide homofobiko eta lesbofobikoei dagokienez ere.

Bestalde, atal honetan *Tratu Txarren Indizea (IGM)* adierazten da. Indize hau ED15, ED17 eta ED19 edizietan egindako hurrengo hiru galderen azterketatik sortzen da.

**Galdera:** “Nolako tratua ematen dizute zure ikaskideek ETENGABE IKASTURTEAREN HASIERATIK?”

(Inoiz ez = Ez naute zirikatzen; Batzuetan = Hilean behin edo birritan; Sarritan = Astean behin gutxi gorabehera; Beti = Astean zenbait aldiz)

Egoerak	Inoiz ez	Batzuetan	Sarritan	Beti
A. Ez didate kasurik egiten (nitaz paso egiten dute edo baztertzen naute).	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>
B. Kanpo uzten naute (ez didate parte hartzen uzten).	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>
C. Iraintzen naute.	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>
D. Izengoiti iraingarriak edo barregarriak jartzen dizkirate.	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>
E. Nitaz gaizki hitz egiten dute.	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>
F. Me esconden cosas.	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>
G. Gauzak hausten dizkirate.	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>
H. Gauzak lapurtzen dizkirate.	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>
I. Jo egiten naute.	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>
J. Mehatxatzen naute beldurra sartzeko bakarrik.	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>
K. Mehatxuen bidez egin nahi ez ditudan gauzak (dirua ekarri, etxerako lanak eginarazi, oinetakoak eskatu eta abar) egitera derrigortzen naute.	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>
L. Sexu jazarpena egiten didate (gorputz atalak erakustera behartu, gorputz atalei buruzko txantxak egin, nire harremani buruzko hizki-mizkiak zabaldu, ukitu, keinu lizunak egin...). (DBHn soilik)	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>
LL. Armaz (makilak, labanak, etab.) mehatxatzen naute.	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>
M. SMS, WhatsApp (telefono mugikorra), TikTok, Instagram... (Internet) eta antzekoen bidez mezuak bidaltzen dizkirate mehatxatzeko, iraintzeko, barregarri uzteko...	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>
N. Giza sareetatik (TikTok, Instagram...) kendu naute edo txatetatik (WhatsApp, Telegram, Zoom...) kanpo utzi naute.	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>
O. Niri buruzko argazkiak, irudiak edo mezuak telefono mugikorrarekin edo Interneten zabaltzen dituzte eta nire kontra erabiltzen dute.	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>
P. Telefono mugikorrarekin grabatzen naute, eta grabaketa zabaltzen dute nire kontra erabiltzeko.	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>
Q. Telefono mugikorrarekin grabatzen naute, gero, mehatxuka, egin nahi ez ditudan gauzak egitera behartzeko.	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>
R. Nire kontuan sartzen dira eta nire izenean mezuak eta irudiak bidaltzen dituzte nire lagunekin arazoak sortzeko eta ni arriskuan jartzeko.	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>





**Galdera:** “Lehen aipatutako arazoetako bat (jotzea, iraintzea, zure irudi iraingarriak zabaltzea...) zuk ETENGABE jasango bazenu, nori eskatuko zenioke laguntza? (Mesedez, behar dituzun erantzun guztiak markatu)”.

A. Lagunei.	<input type="checkbox"/>
B. Tutoreari.	<input type="checkbox"/>
C. Irakasleei.	<input type="checkbox"/>
D. Zuzendariari.	<input type="checkbox"/>
E. Nire familiari.	<input type="checkbox"/>
F. Inori ere ez (ez nuke laguntzarik eskatuko).	<input type="checkbox"/>

**Galdera:** Ikaskide batek aurreko atalean deskribatutako tratu txar bat (iraintzea, diskriminatzea, mehatxatzeko mezuak jasotzea, gauzak ezkutatzea, jotzea...) sufritzen duenean, zuk zer egiten duzu? Erantzun pentsatzen duzunera edo egiten duzunera gehien hurbiltzen dena.

A. Pertsona heldu bati esaten diot (irakaslea, tutorea, zuzendaritza, familia...).	<input type="radio"/>
B. Jokaera hori mozten saiatzen naiz nire adiskidea baldin bada.	<input type="radio"/>
C. Jokaera hori mozten saiatzen naiz nire adiskidea ez bada ere.	<input type="radio"/>
D. Geldiarazi egin beharko nukeela uste dut, baina ez dut ezer egiten.	<input type="radio"/>
E. Ez dut ezer egiten, ez da nire arazoa.	<input type="radio"/>
F. Ez dut parte hartzen, baina egiten dutena ez zait gaizki iruditzen.	<input type="radio"/>
G. Ikaskidea zirikatzen dut, taldeak bezala.	<input type="radio"/>
H. Parte hartzen dut eta ikaskidea zirikatzen duen taldea zuzentzen dut.	<input type="radio"/>

Hauek dira Lehen Hezkuntzako 4. mailako eta DBHko 2. mailako TTIren emaitzak:



Datuen arabera, TTI gutxitu egin da ED15 eta ED17 edizioetan, baina ez ED19 edizioan.

Bestalde, ED15ean y ED17an ekasleek galdera hau erantzun zuten:

**Galdera:** "Adierazi zure ikastetxean ikaskideren bat ondorengo arrazoiengatik ETENGABE baztertzen, arbuatzen, iraintzen edo jotzen duten. (Hainbat erantzun eman ditzakezu)".

A. Mutila izateagatik	<input type="checkbox"/>
B. Neska izateagatik	<input type="checkbox"/>
C. Gaytzat hartzen dutelako (DBHn soilik)	<input type="checkbox"/>
D. Lesbianatzat hartzen dutelako (DBHn soilik)	<input type="checkbox"/>
E. Ezaugarri fisikoengatik, janzkeragatik, betaurrekoak eramateagatik...	<input type="checkbox"/>
F. Inoiz ez dut halako egoerarik ikusi	<input type="checkbox"/>

Datuetatik honako hau ondorioztatzen da:


ED17an, ikastetxeetako indarkeria sexistaren pertzepzioa murriztu egin dela dirudi, Lehen Hezkuntzan 4. mailan zein Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan. DBHko. 2. mailako neskek mutilek baino neurri handiagoan hauteman dute. Arrazoirik azpimarragarriena "Ezaugarri fisikoengatik" izan da bi etapetan.

"Mutila izateagatik" edo "Neska izateagatik" berdinen artean eragindako tratu txarrak nabarmen txikiagoak dira DBHko 2. mailan LHko 4. mailan baino. Hala ere, ED15arekin alderatuta ehunekoak murriztu bada ere, DBHn oraindik % 9,3 dira gaya izateagatik diskriminazioa dagoela ikusi dutenak, eta % 2,7 lesbiana izateagatik diskriminazioa dagoela ikusi dutenak. Neskek neurri handiagoan ikusi dituzte jokabide horiek.

### 5.3.1.1. Lehen Hezkuntzako 4. maila

Esan daiteke Lehen Hezkuntzako 4. mailako ikasleek (ED17) indarkeria sexistako egoera gutxiago hauteman dituztela (4,3 portzentaje-puntu) ED15ean jasotakoak baino. Mutil izateagatik diskriminazioa antzekoa da bi edizioetan (ikasleen % 18 inguruk ikusten du), neska izatearena 2,3 puntu murriztu da eta ezaugarri fisikoengatik tratu txarrak 4 puntu gehiago igo dira.


5.3.1.1.a. grafikoa: LHko 4. maila. ED15-ED17. Ikastetxeetako genero-indarkeriaren bilakaera, behatzen duenaren ikuspegitik.



Genero-indarkeria ikusten duten LH4ko ikasleen ehunekoak behera egin du ED15etik ED17ra. Datu hori urte horietako Tratu Txarren Indize orokorrari (TTI) buruzko datuen bilakaera positiboekin bat dator (ED15eko TTI: 33,8; ED17ko TTI: 30,9). Ezin da alderaketarik egin ED19ko TTIrekin, edizio horretan ez baitzen galdera hori egin.


Sexuaren araberako azterketa eginez gero ikus daitekeenez, Lehen Hezkuntzako 4. mailako neskek, oro har, indarkeria sexistako jokabide gutxiago ikusi dituzte mutilek baino (portzentajezko 3,3 puntu gutxiago). Gehien agertu den aldagaia itxura fisikoari lotutakoa da (% 30 inguruk aipatu dute). Mutilek mutilengan ikusi dituzte tratu txarrei lotutako jokabide gehiago, eta neskek, berriz, neskeengan.

**5.3.1.1.c. grafikoa. LHko 4. maila. ED17. Ikastetxeetako genero-indarkeria, mutilen eta nesken ikuspegitik.**



Lehen Hezkuntzako 4. mailako ikasleek generoarekin lotutako tratu txarrak jasan dituztela uste dutenen erantzunak aztertzean, eta hezkidetzazko proiektua duten ikastetxeetan eta proiekturik gabeko ikastetxeetan ikasleek emandako erantzunak bereiziz, honako hau ikus daiteke: proiektua duten ikastetxeetan, ikasleen % 15ek dio tratu txarrak ikusi dituela, eta proiekturik gabeko ikastetxeetan, berriz, % 18k.

**5.3.1.1.d. grafikoa: LHko 4. maila. ED17. Genero-indarkeria, behatzen duenaren ikuspegitik, ikastetxeak hezkidetzazko proiektua duen ala ez kontuan hartuta.**




Aldagaiaren aldea oso txikia da "Neska izateagatik" eta "EZ dut inoiz ikusi" aldagaietan proiekturik gabeko zentroetan eta proiektua duten zentroetan.

### 5.3.1.2. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 2. maila

DBHko 2. mailako ikasleen galde-sortan, Lehen Hezkuntzako 4. mailako ikasleen galde-sortan bildutako erantzun-aukerei beste bi gaineratu zaizkie: “Gaytzat hartzen dutelako” eta “Lesbianatzat hartzen dutelako”. DBHko 2. mailan genero-indarkeria murrizten ari dela esan daiteke, behatzen duten pertsonen ikuspegitik bederen: ia % 62k adierazi dute inoiz ez dutela halako jokabiderik ikusi. Beraz, ehunekoa ED15ean baino portzentajezko 14,9 puntu handiagoa izan da.


5.3.1.2.a. grafikoa: DBHko 2. maila. ED15-ED17. Ikastetxeetako genero-indarkeriaren bilkaera, behatzen duenaren ikuspegitik.



LHko 4. mailan gertatzen zen bezala, ED15eko eta ED17ko DBHko 2. mailako genero-indarkeriaren beharakada bat dator urte horietako Tratu Txarren Indize orokorra (TTI) datuen bilakaerarekin (ED15eko TTI: 15,7; ED17ko TTI: 13,2). Ezin da alderaketarik egin IGM ED19ko TTIrekin, edizio horretan ez baitzen galdera hori egin.


ED17an, ED15ean bezala, genero-indarkeria hauteman duten DBHko 2. mailako mutilak neskek baino gutxiago izan dira (portzentajezko 10 puntu gutxiago), itxurari lotutako tratu txarrak ikusi dituzten nesken ehuneko handiak (% 41,2) eraginda beharbada. Galdetutako gainerako aldagaietan, neskek zein mutilek indarkeria handiagoa ikusten dute “gaya izateagatik” (% 8,5etik % 10,2ra bitarte) “lesbiana izateagatik” (% 2,1etik % 3,3ra bitarte) baino.

5.3.1.2.b. grafikoa: DBHko 2. maila. ED17. Ikastetxeetako genero-Indarkeria, nesken eta mutilen ikuspegitik.



DBHko 2. mailako ikasleen ehunekoan ikasleak proiektua duen ikastetxe batekoak edo proiekturik ez duen ikastetxe batekoak diren kontuan hartuta agertzen den aldea puntu batekoa da, gora edo behera.


**5.3.1.2.c. grafikoa: DBHko 2.maila. Ikastetxeetako genero-indarkeria, behatzen duenaren ikuspegitik, ikastetxeak hezkidetzako proiektua duen ala ez kontuan hartuta.**



### 5.3.1.3. Lehen Hezkuntzako 4. maila eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 2. maila

Laburbilduta, ikastetxeetako genero-indarkeriaren pertzepzioaren ehunekoek beheranzko joera bat dagoela iradokitzen dute. ED17an, “Inoiz ikusi ez dutela” adierazi duten DBHko ikasleak % 15 gehiago izan dira, eta Lehen Hezkuntzako ikasleak, berriz, % 4,3 gehiago. Lehen Hezkuntzan “itxuragatik” indarkeria motaren bat egin duten ikasleen ehunekoak baino ez du gora egin.

**5.3.1.3. grafikoa: LH4 eta DBH2. ED15-ED17. Ikastetxeetako genero-indarkeriaren bilakaera, behatzen duenaren ikuspegitik.**



### 5.3.2. Ikasgeletako genero-indarkeriaren bilakaera, biktimen ikuspegitik

Indarkeria behatzen dutenen pertzepzioa ezagutzea bezain garrantzitsua da biktima sentitzen direnen pertzepzioa ezagutzea.

Jarraian, galdera-sortako honako galdera honen erantzunak ezagutu ahal izango ditugu:

**Galdera:** Adierazi ea ikasturte hau hasi zenetik baztetu, iraundu, astindu edo ikaratu zaituzte ETENGABE hurrengo arrazoi batengatik. (Mesedez, markatu behar dituzun erantzunak).

A. Neska edo mutila izateagatik.	<input type="checkbox"/>
B. Nire sexu-joeragatik (gai edo lesbiana).	<input type="checkbox"/>
C. Nire ezaugarri fisikoengatik edo janzteko itxuragatik, betaurrekoak erabiltzeagatik...	<input type="checkbox"/>
D. Ez zait inoiz gertatu halako egoerarik.	<input type="checkbox"/>

Mutilak izateagatik edo neskak izateagatik biktima sentitzen direla adierazi duten ikasleen ehunekoa handiagoa da Lehen Hezkuntzako 4. mailan DBHko 2. mailan baino. Ez dirudi alderik dagoenik hezkidetza-proiektua duen ikastetxe batekoa edo proiekturik ez duen ikastetxe batekoa izateagatik.


Hala ere, DBHko 2. mailan ehunekoak desberdinak dira. Mutila edo neska izateagatik diskriminazioaren ehunekoak nabarmen murriztu dira. Biktimen ikuspegitik, sexu-orientazioagatiko diskriminazioa oso txikia da zorionez (% 1 ingurukoa).

Ehuneko horietan ere ez dirudi eragina duenik hezkidetza-proiektua duen ikastetxe batekoa izateak edo ez izateak.

#### 5.3.2.1. Lehen Hezkuntzako 4. maila


Behatzen duten ikasleei buruzko aurreko atalean bezala, biktima sentitzen diren Lehen Hezkuntzako 4. mailako ikasleen ehunekoa ere murriztu egin da (portzentajezko 3,4 puntutan).

5.3.2.1.a. grafikoa: LHko 4. maila. ED15-ED17. Ikastetxeetako genero-indarkeriaren inguruan biktimek duten pertzepzioaren bilakaera.




ED15ean ikusten dugu eskola-eremuan ikaskideengandik indarkeriazko jokabideren bat jasan dutela dioten ikasleen ehunekoak % 33,3koa dela eta % 34koa ED17an. ED17an, nesken % 69k eta mutilen % 63k adierazi dute ez dutela ikaskideen indarkeriazko jokabiderik jasan eskola-espazioaren barruan. Datu horrek ia 4 puntutan egin du gora nesken kasuan, eta 3,4 puntutan mutilen kasuan.

**5.3.2.1.b. grafikoa: LHko 4. maila. ED15-ED17. Ikastetxeetan indarkeriazko jokabiderik jasan ez dutela dioten ikasleen ehunekoaren bilakaera, sexuaren arabera.**



Ez dirudi ikastetxeak hezkidetza-proiektua izateak eragina duenik Lehen Hezkuntzako 4. mailako ikasleek mutila edo neska izateagatik biktima sentitzeari dagokionez emandako erantzunean. Ehunekoak antzekoak dira.


**5.3.2.1.d. grafikoa: LHko 4. maila. Genero-indarkeria, biktimen ikuspegitik, ikastetxeak hezkidetza-proiektua duen ala ez kontuan hartuta.**



### 5.3.2.2. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 2. maila


ED17an, biktimen ikuspegitik, ikasleen % 90ek adierazi dute inoiz ez dutela tratatu txarrik jaso mutila/neska izateagatik, gaya/lesbiana izateagatik edo ezaugarri fisikoengatik. Ikus daitekeenez, portentaje hau Lehen hezkuntzakoaz alderatuta ia % 25 altuagoa da. Bestalde, arrazoi fisikoak gaya edo lesbiana izatea baino pisu handiagoa dute erasoan.

**5.3.2.2.a. grafikoa: DBHko 2. maila. ED15-ED17. Ikastetxeetako genero-indarkeriaren inguruan biktimek duten pertzepzioaren bilakaera.**




Tratu txarrik inoiz izan ez duten ikasleen ehunekoak hobera egin du ED15tik ED17ra, bai neskengan, bai mutilengan. Nesken eta mutilen ia % 90ek ez du genero-indarkeriarik jasan, ED17ren arabera.

**Gráfico 5.3.2.2.b.: DBHko 2. maila. ED15-ED17. Ikastetxeetan indarkeriazko jokabiderik jasan ez dutela dioten ikasleen ehunekoaren bilakaera, sexuaren arabera.**



Lehen Hezkuntzan bezala, Hezkidetza-Proiektua duen ikastetxe batean egoteak ez dirudi eragina duenik ehuneko txiki horietan.

**5.3.2.2.c. grafikoa: DBHko 2. maila. ED17. Genero-indarkeria, biktimen ikuspegitik, ikastetxeak hezkidetza-proiektua duen ala ez kontuan hartuta.**





## **6. BERDINTASUNA IKASTETXEETAN, ZUZENDARITZA-TALDEEN ARABERA**



3. kapituluan (“Ikerketaren ezaugarriak”) adierazi dugunez, Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxeetako zuzendaritza-taldeek bete dituzten testuinguruko bi galde-sortetako batek, hots, ikasketa-burutzei zuzendutako **B galde-sortak** genero-berdintasunari, genero-indarkeriaren prebentzioari eta sexu-aniztasunari lotutako honako galdera hauek biltzen ditu:

- Ikastetxeetako prestakuntza-planetan jasotako gaiak (1. galdera).
- 2016-17 ikasturteko ikastetxeko planetan jasotako alderdiak (2. galdera).
- Mutilen eta nesken arteko harremanen pertzepzioa ikastetxeetan (4. Galdera).

Galdera-sorta hori ED15ean eta Ed17an egin zen.

## 6.1 Berdintasuna prestakuntza-planetan

Lehen Hezkuntzako ikastetxeetako irakasleak, berdintasunaren inguruan iradokitako gaiak dagokienez, *Berdintasuna eta sexismoaren detekzioa* gaian eta, ondoren, *Genero-indarkeriaren detekzioa eta prebentzioa* eta *Sexu-aniztasuna* gaietan prestatu dira nagusiki. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, *Genero-indarkeriaren detekzioa eta prebentzioa* gaiak jaso du erantzun-ehunekorik handiena, eta, haren atzetik, *Berdintasuna eta sexismoaren detekzioa* eta *Sexu-aniztasuna* gaiak. Lehenespene hori antzekoa izan zen ED15ean, baina ehunekoak gora egin du ED17an.


Espero zenez, Hezkidetza-Proiektu espezifikoak edo integralak duten ikastetxeen artean berdintasunaren eta genero-indarkeriaren prebentzioaren inguruko prestakuntza jaso duten edota gai horiek era jarraituagoan landu dituzten ikastetxeen ehunekoak gainerako ikastetxeena baino handiagoak da, Lehen Hezkuntzan zein DBHn.

### 6.1.1. Prestakuntza-planak Lehen Hezkuntzan

#### 6.1.1.1. Berdintasunaren inguruko prestakuntzaren bilakaera LHko ikastetxeetan. ED15-ED17

ED15ean, Lehen Hezkuntzako 448 ikastetxek bete zuten galde-sorta, eta ED17an, berriz, 469 ikastetxek. B galde-sorta Ikasketa Burutzako arduradunek edo etapa bakoitzeko Zuzendaritzak bete zuten. Ondorengo grafikoan, berdintasunari eta genero-indarkeriaren prebentzioari lotutako gaiak ikastetxe horien prestakuntza-planetan izan duten bilakaera ikus daiteke. ED17an, ikus daitekeenez, berdintasunari eta genero-indarkeriaren prebentzioari lotutako gaietan prestatu diren ikastetxeen ehunekoak gora egin du 3 gaietan, ED15arekin alderatuta.


**6.1.1.1.a. grafikoa: ED15-ED17. Berdintasunari lotutako gaiak Euskal Autonomia Erkidegoko Lehen Hezkuntzako prestakuntza-planetan txertatzeko prozesuaren bilakaera.**



### 6.1.1.2. Berdintasunaren inguruko prestakuntza Hezkidetzeta-Proiektua duten eta ez duten LHko ikastetxeetan

Alderdi hori ikastetxeek 2013tik 2017ra bitarte hainbat alditan hezkidetzeta-proiektu espezifikoetan edo integraletan parte hartu duten ala ez kontuan hartuta aztertuz gero, honako hau ikus daiteke 2017ko datuetan: sailak onartutako hezkidetzeta-proiektu bat izan duten ikastetxeen % 78,4 *Berdintasuna eta sexismoaren detekzioa* gaien prestatu dira (onartuta ez dutenen ikastetxeak baino portzentajezko 19,2 puntu gehiago), % 62,2 *Genero-indarkeriaren detekzioa eta prebentzioa* gaien (21,1 puntu gehiago) eta % 50,5 *Sexu-aniztasuna* gaien (gainerakoak baino 15,6 puntu gehiago).

**6.1.1.2.a. grafikoa: ED17. Berdintasunari lotutako gaiak prestakuntza-planetan txertatzea, hezkidetzeta-proiektua duten eta ez duten Lehen Hezkuntzako ikastetxeetan.**



Aurreko ataletan, etxeko lanetan edo beste pertsona batzuen zaintzan emandako denbora, lanbide-eskuduntzak eta bizitzan zeharreko aukeren eskuduntzak aztertu dira. Lortutako emaitzetan ez da beti alde nabarmenik ikusi hezkidetzeta-proiektua duten ikastetxeen alde. Beharbada, azalpenetako bat ikastetxeek hezkidetzan hasteko aukeratutako gai nagusietan dago. Sexismoa antzematea eta berdintasuna oso gai zabala da, eta, beharbada, ez da beti galdetegian eskatutako eskuduntzekin lotuta lan egiten.


## 6.1.2. Prestakuntza-planak Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan

### 6.1.2.1. Berdintasunaren inguruko prestakuntzaren bilakaera DBHko ikastetxeetan. ED15-ED17

ED15ean, Euskal Autonomia Erkidegoko DBHko 258 ikastetxek bete zuten zuzendaritza-taldeentzako galdera-sorta, eta ED17an, berriz, 274 ikastetxek. Lehen Hezkuntzan bezala, B galde-sorta Ikasketa Burutzako arduradunek edota etapa bakoitzeko Zuzendaritzek bete zuten. Ondorengo grafikoak ikastetxeen prestakuntza-planetan *Berdintasunari eta genero-indarkeriaren prebentzioari* buruzko gaietan emandako erantzunei dagozkie.

Ikus daitekeenez, berdintasunari lotutako gaietan prestatu diren irakasleen ehunekoa handiagoa da DBHko ikastetxeetan Lehen Hezkuntzako ikastetxeetan baino. Era berean, ED15eko ehunekoekin alderatuta, *Berdintasuna eta sexismoaren detekzioa* gaian izan ezik (0,9 puntutan egin du behera ehunekoak), gainerako bi gaietan gora egin du prestakuntzak ED17an.


**6.1.2.1.a. grafikoa: ED15-ED17. Berdintasunari lotutako gaien bilakaera Euskal Autonomia Erkidegoko DBHko ikastetxeen prestakuntza-planetan.**



### 6.1.2.2. Berdintasunaren inguruko prestakuntza Hezkidetza-Proiektua duten eta ez duten DBHko ikastetxeetan

Alderdi hori ikastetxeek 2013tik 2017ra bitartean hainbat alditan hezkidetza-proiektu espezifikoetan edo integraletan parte hartu duten ala ez kontuan hartuta aztertuz gero, honako hau ikus daiteke 2017ko datuetan: hezkidetza-proiektu bat izan duten ikastetxeen % 78,4 *Berdintasuna eta sexismoaren detekzioa* gaian prestatu dira (proiekturik ez dutenen ikastetxeak baino 11,7 puntu gehiago); *Genero-indarkeriaren detekzioa eta prebentzioa* gaian gutxiago izan dira, baina, hala ere, ehunekoa handia da (lau ikastetxetik hiru); azkenik, proiektua duten ikastetxeen % 58,8 *Sexu-aniztasuna* gaian prestatu dira (proiekturik ez duten ikastetxeak baino ia 13 puntu gehiago). Lehen Hezkuntzako 4. mailan bezala, genero-indarkeriaren detekzioari eta prebentzioari lotutako gaiak hartu dira lehentasunezko zatik prestakuntzetan.

**6.1.2.2.a. grafikoa:** ED17. Berdintasunari lotutako gaiak prestakuntza-planetan txertatzea, hezkidetza-proiektua duten eta ez duten DBHko ikastetxeetan.



## 6.2. Berdintasunari lotutako gaiak 2016-17ko ikastetxeko planetan txertatzea

Zuzendaritza-taldeentzako B galde-sortaren 2. galderan, 2016-17ko Ikastetxeko Planean berdintasunari eta genero-indarkeriaren prebentzioari lotutako alderdi batzuk jasota dauden adierazteko eskatu zitzairen.


## 6.2.1. Berdintasuna LHko ikastetxeko planetan

### 6.2.1.1. Berdintasunari lotutako gaien bilakaera LHko ikastetxeko planetan. ED15-ED17

Ondorengo grafikoan ikus daitekeenez, Lehen Hezkuntzako ikastetxeek gaiak edo proiektuak garatzeko eta beren ikastetxeko planetan txertatzeko duten lehentasun-ordena ez da neurri handian aldatu, ED17ko erantzunak eta ED15ekoak alderatuz gero.

Oro har, esan daiteke *Berdintasunari eta genero-indarkeriaren prebentzioari* lotutako ia gai guztiak gero eta neurri handiagoan txertatu direla, “*espazio partekatuen erabilera berrikustea*” gaia izan ezik; kasu horretan, portzentajezko ia 2 puntuko beherakada gertatu da.


**6.2.1.1. grafikoa: ED15-ED17. Lehen Hezkuntzako ikastetxeko planetan bildutako alderdien bilakaera.**



### 6.2.1.2. Berdintasuna Hezkidetzaren Proiektua duten eta ez duten LHko ikastetxeen ikastetxeko planetan

Informazio hori bera Lehen Hezkuntzako ikastetxeak Hezkidetzaren Proiektua duten ala ez kontuan hartuta aztertuz gero ikus daitekeenez, proiektua duten ikastetxeen ehunekoak gainerako ikastetxeenak baino handiagoak dira gai guztietan, eta aldeak 10,4 puntutik 27,7 puntura bitartekoak izan dira (“Eskola goiz ez uztea eta genero-oztopoak, kultura-oztopoak eta abar desagerraraztea” eta “Genero-indarkeria detektatzea eta prebenitzea” aukeretan, hurrenez hurren).

**6.2.1.2. grafikoa: ED17. Hezkidetzaren proiektua duten eta ez duten LHko ikastetxeen 2016-17ko planetan txertatutako berdintasun-gaiak.**






## 6.2.2. Berdintasuna DBHko ikastetxeko planetan

### 6.2.2.1. Berdintasunari lotutako gaien bilakaera DBHko ikastetxeko planetan. ED15-ED17

Lehen Hezkuntzako ikastetxeekin gertatzen den bezala, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetan hezkidetzari, *Berdintasunari eta genero-indarkeriaren prebentzioari* lotutako eta 2016-17 ikasturtean ikastetxeko planei gaineratutako gai gehienak ED15aren antzera ordenatu dira.

Esan daiteke gora egin duela edo berdin jarraitu duela gai gehienak beren ikastetxeko planetan txertatu dituzten ikastetxeen ehunekoak, honako gai hauetan izan ezik: *“Ikasleen autonomia eta erantzunkidetasuna sendotzea, etxeko lanetan zein eskola-lanetan”* (portzentajezko -8,4 puntu) eta *“Eskola goiz ez uztea eta genero-oztopoak, kultura-oztopoak eta abar desagerraraztea”* (portzentajezko -7,8 puntu).

6.2.2.1. grafikoa: ED15-ED17. DBHko ikastetxeko planetan bildutako alderdien bilakaera.




### 6.2.2.2. Berdintasuna Hezkidetzaren Proiektua duten eta ez duten DBHko ikastetxeen ikastetxeko planetan

DBHko ikastetxeek emandako erantzunak hezkidetzaren proiektua duten ala ez kontuan hartuta aztertuz gero ikus daitekeenez, Lehen Hezkuntzan bezala proiektua duten ikastetxeek neurri handiagoan landu dituzte *Berdintasunari eta genero-indarkeriaren prebentzioari* lotutako gaiak, espero zitekeenez.

Aldeak oso handiak dira zenbait alderditan. Alderik handienak honako alderdi hauetan agertu dira: *“Ikastetxea ikasle guztientzat errespetu- eta segurtasun-esparru bat izan dadin bermatzea”* (portzentajeazko +22 puntuko aldea) eta *“Curriculumean emakumeen jakintza eta ekarpena txertatzea”* (+20 puntuko aldea).

6.2.2.2. grafikoa: ED17. Hezkidetzaren proiektua duten eta ez duten DBHko ikastetxeetako 2016-17ko planetan txertatutako berdintasun-gaiak.




### 6.3. Berdintasunari eta genero-indarkeriaren prebentzioari lotutako dokumentuak Lehen Hezkuntzako eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetan

B galde-sortaren 3. galderan, berdintasunari eta genero-indarkeriaren prebentzioari lotutako jarduerak zer dokumentutan jaso diren adierazteko eskatu zitzaaien ikastetxeetako zuzendaritzei. Aukerak, orokorrenetik zehatzenera ordenatuta, honako hauek ziren: “Ikastetxeko planetan eta/edo proiektuetan”, “Ikasgelako programazioetan”, “Noizean behingo jarduera gisa, data sinboliko bat ospatzeko” eta “Orain ez ditugu jasotzen”.

#### 6.3.1. Ikastetxeetan berdintasunari lotutako gaiak lantzeko moduaren bilakaera. ED15-ED17

2016-17 ikasturteko ikastetxeko planetan, Lehen Hezkuntzako ikastetxeen % 6,4k eta DBHko ikastetxeen % 3,3k baino ez dute adierazi ez dutela lantzen *Berdintasunari eta genero-indarkeriaren prebentzioari* lotutako ezein gairik, ezta noizean behin ere. Hau da, DBHko ikastetxeen % 96k baino gehiagok eta Lehen Hezkuntzako % 93k baino gehiagok lantzen dituzte, orokorrean eta egun seinalatuetan, hezkidetzako jarduerak. Ehuneko horiek gora egin dute ED15ekoekin alderatuta, bi etapetan eta zehaztasun-maila guztietan.

6.3.1. *grafikoa*: ED15-ED17. Berdintasunari eta genero-indarkeriaren prebentzioari lotutako gaien bilakaera LHko eta DBHko ikastetxeen dokumentazioan.




Oraindik ere, genero-berdintasunarekin lotutako gaiak ikasgelan sistematikoki esku hartzea ez dago ezarrita gehienbat; ikastetxeak lehentasuna ematen ari dira ikastetxeko planetan eta proiektuetan sartzeko. Bestalde, jarduera puntuala da nagusi ikasleekin berdintasunari eta genero-indarkeriaren prebentzioari buruzko gaiak ezartzean.

#### 6.3.2. Berdintasuna Hezkidetzako-Proiektua duten ikastetxeetan eta ez dutenetan berdintasunari lotutako gaiak lantzeko moduan

Espero zitekeenez, ikasturteetan hezkidetzako-proiektu espezifiko edo integralen bat egin duten EAEko Lehen Hezkuntzako eta DBHko ikastetxeek neurri handiagoan txertatzen dituzte gai horiek beren planetan eta proiektuetan (+18 puntuko aldea Lehen Hezkuntzan, eta +16 puntukoa DBHn), neurri handiagoan eramaten dituzte ikasgelako programazioetara (+11 puntuko aldea Lehen

Hezkuntzan, eta +3 puntukoa DBHn), eta noizean behingo jarduera gehiago egiten dituzte (proiektua duten ia ikastetxe guztietan egiten da horrelako jardueraren bat), jarduera puntual gehiago ere badituzte (+9 lehen hezkuntzan eta +15 DBHn), eta hezkidetza-proiektua duten ia ikastetxe guztietan egiten da mota horretako jardueraren bat.

**6.3.2. grafikoa: ED17. Hezkidetza-proiektua duten eta ez duten LHko eta DBHko ikastetxeetan berdintasuna eta genero-indarkeriaren prebentzioa lantzeko modua.**



Oro har, proiektua duten Lehen Hezkuntzako ikastetxeek DBHkoek baino lehentasun handiagoa izan dute ikastetxeetan berdintasun-gaiak sartzeari dagokionez.

### 6.4. Ikasleen arteko harremanen kalitatea, zuzendaritza-taldearen ikuspegitik

Ondoren, B galde-sortaren 4. galderari dagozkion emaitzak emango ditugu. Galdera horretan, beren ikastetxeko ikasleen arteko harremanak aztertzeke eskatu zitzaizen ikastetxeetako zuzendaritzeari edo ikasketa-burutzei.

Emandako 13 aukeren artean, 9 harreman desberdin edo ez-berdintasunezko gisa sailka litezke, eta gainerako 4ak, berriz, berdintasunezko harreman gisa. Erantzuteko aukerak “bat ere ez”, “neurri txikian”, “neurri handi samarrean” eta “oso neurri handian” direnez gero, “neurri handi samarrean” eta “oso neurri handian” erantzunak hartu ditugu kontuan.


## 6.4.1. Lehen Hezkuntzako ikasleen arteko harremanen kalitatea

### 6.4.1.1. LHko ikastetxeetako zuzendaritzek ikasleen arteko harremanen inguruan duten pertzepzioaren bilakaera. ED15-ED17

Ikus daitekeenez, alde gutxi dago, harremanen pertzepzioari dagokionez, ED15ean emandako erantzunen eta ED17an emandakoen artean. “Berdintasunezkoagoak” diren harremanetan ia ez dago alderik eta, ehuneko oso handia da (% 94tik % 96ra bitartekoa).

“Berdintasun txikiko” harremanen kasuan, bereizketa txikiagoa agertu da jolas garaietan (portzentajezko 6 puntu gutxiago) eta ikasgeletan.


6.4.1.1. grafikoa: ED15-ED17. Nesken eta mutilen arteko harremanen kalitatearen bilakaera, LHko ikastetxeetako zuzendaritza-taldeek ikuspegitik.



### 6.4.1.2. Ikasleen arteko harremanen kalitatea, Hezkidetza-Proiektua duten eta ez duten LHko ikastetxeetako zuzendaritzen ikuspegitik

Datu hori ikastetxeak Hezkuntza Sailaren hezkidetza-proiektuetan parte hartu duen ala ez kontuan hartuta aztertzen bada, honako hau ikus daiteke:

**6.4.1.2. grafikoa: ED17. Ikasleen arteko harremanak, hezkidetza-proiektua duten eta ez duten LHko ikastetxeetako zuzendaritza-taldeen ikuspegitik.**



Berdintasunezko harreman motei dagokienez, alde txikia dago proiektua duten ikastetxeen eta ez dutenen artean (puntu 1 inguru). Hala ere, berdintasunezkoak ez diren harremanen pertzepzioa aztertuz gero ikus daitekeenez, hezkidetza-proiektu espezifikoak edo integrala duten ikastetxeek neurri txikiagoan ikusten dituzte “ez-berdintasunezko” jokabideak beren ikasleengan: “*Ikasgelan, neskak eta mutilak bereizita daude*” (proiekturik ez duten ikastetxeen % 5 eta proiektua dutenen % 2) eta “*Sexismoa dago ikasleen arteko harremanetan*” (proiekturik ez duten ikastetxeen % 10 eta proiektua dutenen % 8).


## 6.4.2. DBHko ikasleen arteko harremanen kalitatea

### 6.4.2.1. DBHko ikastetxeetako zuzendaritzek ikasleen arteko harremanen inguruan duten pertzepzioaren bilakaera. ED15-ED17

Ondorengo grafikoa, DBHko ikastetxeetako zuzendaritza-taldeek ikasleen arteko harremanen kalitateari dagokionez duten iritzia jaso dugu, “oso neurri handian” eta “neurri handi samarrean” erantzunak kontuan hartuta. Berdintasunik handieneko harremanak eskuinekoak dira, eta berdintasunik txikienekoak, berriz, ezkerrekoak.

ED15ean, oso ehuneko handiak lortu ziren berdintasuneko harremanen inguruan (% 95 baino gehiago), eta ED17an antzeko ehunekoak lortu dira. Berdintasunik txikieneko jokabideei lotutako ehunekoak murriztu egin dira ED17an, ia egoera guztietan.


**6.4.2.1.a. grafikoa: ED15-ED17. Nesken eta mutilen arteko harremanen kalitatearen bilakaera, DBHko ikastetxeetako zuzendaritza-taldeek ikuspegitik.**



### 6.4.2.2. Ikasleen arteko harremanen kalitatea, hezkidetza-proiektua duten eta ez duten Lehen Hezkuntzako ikastetxeetako zuzendaritzen ikuspegitik

Azterketa hori azken ikasturteetan hezkidetza-proiektu bat (espezifiko edo integrala) egin duten ikastetxeak kontuan hartuta eginez gero ikus daitekeenez, are ehuneko handiagoa lortu da berdintasunik handieneko jokabideei lotutako erantzunetan. Berdintasunik txikieneko jokabideei edo mutilen eta nesken arteko bereizketa edo bizikidetza-zailtasunak agertzen dituzten jokabideei dagokienez, ordea, Lehen Hezkuntzan ez bezala, ehuneko handiagoa lortu da behatutako jokabide batzuetan: “*Jolas garaian bereizita daude*” (13 puntu gehiago), “*Nahiago dute sexu berekoekin lan egin*” (5 puntu gehiago) eta “*Neskak seguruago sentitzen dira mutilik ez badago*” (4 puntu gehiago).

6.4.2.2. *grafikoa*: ED17. Ikasleen arteko harremanak, hezkidetza-proiektua duten eta ez duten DBHko ikastetxeetako zuzendaritza-taldeek ikuspegitik.





**I ERANSKINA: ZUZENDARITZA  
TALDEENTZAKO GALDERA-SORTA**



Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxeetako zuzendaritza-taldeek bete dituzten testuinguruko bi galde-sortetako batek, hots, ikasketa-burutzei zuzendutako B galde-sortak genero-berdintasunari eta genero-indarkeriaren prebentzioari lotutako honako galdera hauek biltzen ditu:

- **1. galdera:** “Adierazi ondorengo gaietatik zein ari diren lantzen zure ikastetxeko Lehen Hezkuntzako/Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako egungo prestakuntza-planean. (Arren, markatu bidezkotzat hartzen dituzun aukera guztiak)”.

a) Berdintasuna eta sexismoaren detekzioa.	<input type="checkbox"/>
b) Genero-indarkeriaren detekzioa eta prebentzioa.	<input type="checkbox"/>
c) Sexu-aniztasuna.	<input type="checkbox"/>

- **2. galdera:** “Jasota al daude ondorengo alderdiak Lehen Hezkuntzako/Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 2016-17ko ikastetxeko planean? (Arren, markatu bidezkotzat hartzen dituzun aukera guztiak)”.

a. Berdintasunezko harremanak sustatzea, estereotipo sexistak desagerrarazteko.	<input type="checkbox"/>
b. Curriculumean emakumeen jakintza eta ekarpena txertatzea.	<input type="checkbox"/>
c. Ikasleen autonomia eta erantzunkidetasuna sendotzea, etxeko lanetan zein eskolako lanetan.	<input type="checkbox"/>
d. Irudi eta hizkuntza ez-diskriminatzaileak erabiltzea (liburuak, kartelak, dokumentuak, deialdiak eta abar).	<input type="checkbox"/>
e. Eskola goiz ez uztea eta genero-oztopoak, kultura-oztopoak eta abar desagerraraztea.	<input type="checkbox"/>
f. Ibilbide akademikoaren aukeraketan genero-aurreiritzirik gabe orientatzea.	<input type="checkbox"/>
g. Genero-indarkeria detektatzea eta prebenitzea.	<input type="checkbox"/>
h. Ikastetxea sexu-orientazio guztientzat errespetu- eta segurtasun-esparru izan dadin bermatzea.	<input type="checkbox"/>
i. Hezkuntza afektibo-sexualeko jarduerak egitea.	<input type="checkbox"/>
j. Gune partekatuen erabilera berrikustea (patioak eta abar).	<input type="checkbox"/>

- **3. galdera:** “Zer dokumentutan jaso dira berdintasunari eta genero-indarkeriaren prebentzioari lotutako jarduerak? (Arren, markatu bidezkotzat hartzen dituzun aukera guztiak)”.

a. Ikastetxeko planetan eta/edo proiektuetan.	<input type="checkbox"/>
b. Ikasgelako programazioetan.	<input type="checkbox"/>
c. Noizean behingo jarduera gisa, data sinboliko bat ospatzeko.	<input type="checkbox"/>
d. Orain ez ditugu jasotzen.	<input type="checkbox"/>

- **4. galdera:** “Zure ustez, zer neurritan agertzen dira ondorengo egoerak zure ikastetxeke Lehen Hezkuntzako/Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasleen arteko harremanetan?”

	Bat ere ez	Neurri txikian	Neurri handi samarrean	Oso neurri handian
a. Mutilek eta neskek errespetuz eta konfiantzaz tratatzen dute elkar, berdinetik berdinerara.	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>
b. Jolas garaiko guneetan (hala nola patioan), mutilak eta neskek bereizita daude.	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>
c. Mutilek neskek ikaratzen dituzte esaldi iraingarriekin.	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>
d. Neskek mutilak ikaratzen dituzte esaldi iraingarriekin.	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>
e. Neskek seguruago agertzen dira mutilik ez badago.	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>
f. Sexismoa dago ikasleen arteko harremanetan.	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>
g. Adiskidetasun-harreman onak daude mutilen eta nesken artean.	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>
h. Neskek kikildu egiten dira mutilak daudenean.	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>
i. Mutilak kikildu egiten dira neskek daudenean.	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>
j. Mutilek atseginez onartzen dute lantaldean neskekin lankidetzan aritzea	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>
k. Neskek atseginez onartzen dute lantaldean mutilekin lankidetzan aritzea.	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>
l. Ikasgelan, mutilak eta neskek bereizita daude.	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>
m. Norekin lan egingo duten aukeratzen dutenean, nahiago dituzte sexu berekoak	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>

**II. ERANSKINA: EUSKAL AUTONOMIA  
ERKIDEGOKO HEZKIDETZAKO  
IKASTETXE INTEGRALAK (2014-17)**



## I. Proiektu integralen testuingurua

“Hezkidetza eta genero-indarkeriaren prebentzioa lantzeko I. Gida Planean”, 2013-2016 legegintzaldirako lorpen eta konpromiso batzuk landuko zituela agindu zuen Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak. Horien artean, 3. lorpene zegoen.

3. lorpene: Ezaugarri eta egoera soziokultural desberdinak dituzten hamar ikastetxe pilotutan proiektu integralak garatzea, Euskal Autonomia Erkidegoko gainerako ikastetxeentzat eredu eta erreferentzia izan daitezen.

- Horretarako, ikastetxe horiek berariazko baliabideak izango dituzte, hala nola aparteko baimen-orduak eta Berritzeguneek nahiz Hezkuntza Ikuskaritzak eskainitako prestakuntza, aholkularitza eta jarraipena.
- Proiektu horietatik sortuko diren jardunbide egokiak beste ikastetxe guztietara zabalduko dira Berritzeguneen bidez.

Halaber, “ikastetxeek beren kulturaren, politiketan eta jardunbideetan genero-ikuspegia txerta dezaten bultzatzeko” helburu zehatza lortzeko, 3 ikasturtetan (2013-14, 2014-15 eta 2015-16) honako ekintza hauek egingo zirela adierazten zen, beste zenbait estrategia eta ekintzaren artean:

Estrategia	Ekintzak
2.1.c. Hezkidetzari eta genero-indarkeriaren prebentzioari buruzko proiektuen lanketa bultzatzea	2.1.c.1. Hezkidetzari eta genero-indarkeriaren prebentzioari buruzko proiektuak taxutzeko, ikastetxe publikoei zuzendutako deialdi bat egitea, prestakuntza, aholkularitza eta aparteko baimen-orduak barne hartuko dituena.
	2.1.c.2. Hezkidetzari eta genero-indarkeriaren prebentzioari buruzko proiektuak taxutzeko, itunpeko ikastetxeei eta pribatuei zuzendutako berariazko deialdi bat egitea, prestakuntza, aholkularitza eta baliabideak barne hartuko dituena.
	2.1.c.3. Hezkidetza-proiektu integralerako deialdi bat egitea, hiru urterako eta 10 ikastetxerako, prestakuntza, aholkularitza eta aparteko baimen-orduak barne hartuko dituena.
	2.1.c.4. Berritzatze-prestakuntzako proiektuetan, genero-berdintasuna lehenetsun bihurtzea, eta ziurtatzea deialdi bakoitzean gero eta gehiago direla ildo horretako proiektuak aurkeztu dituzten ikastetxeak.

Adierazitako aldirian, hainbat deialdi egin ziren. Azkenik, hezkidetza-proiektu espezifikoak zituzten 200 ikastetxe inguru eta hezkidetza-proiektu integralak zituzten 10 ikastetxe aurkeztu eta onartu ziren.

Hiru ikasturtetan hezkidetza-proiektu integral bat onartuta izan duten Euskal Autonomia Erkidegoko 10 ikastetxeak (Haur Hezkuntzako 1, Lehen Hezkuntzako eta Haur Hezkuntzako 3 eta DBHko eta Batxilergoko 3) honako hauek izan dira:

### Ikastetxe publikoak:

- Okondo Eskola (Haur Hezkuntza) Araba
- CEIP Elejabarri HLHI (Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza) Bizkaia
- CEIP Dunboa HLHI (Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza) Gipuzkoa
- CEIP Lekeitio HLHI (Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza) Bizkaia
- IES Gabriel Aresti BHI (DBH eta Batxilergoa) Bizkaia
- IES Itzio BHI (DBH eta Batxilergoa) Gipuzkoa
- IES Francisco de Vitoria BHI (DBH eta Batxilergoa) Araba

### **Ikastetxe pribatu/itunduak:**

- CPEIP Hirukide-Jesuitinak HLHIP (Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza) Gipuzkoa
- CPEIPS San Nikolas Ikastola HLBHIP (Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza, DBH eta Batxilergoa) Bizkaia.
- CPEIPS Presentación de María HLBHIP (Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza, DBH eta Batxilergoa) Araba.

Ondorengo azterketa ikastetxeek emandako memorietan oinarrituta egin da, hezkuntza-administrazioak konprometitutako aldia amaitu ondoren. Azterketa kualitatiboa da, eta N-Vivo programa erabiltzen egin da. Horretarako, 9 ikastetxeetako memoria guztiak batera aztertu ditugu, edukiak honako atal hauetan bereizita:

- Ikastetxeen errealitatearen diagnostikoa eta sentsibilizazio-prozesua.
- Batzordeak, izendapenak.
- Prestakuntza-prozesuak.
- Orientazioa eta tutoretza.
- Hezkuntza-komunitatearekiko harremanak eta giroa.
- Protokoloen lanketa eta jarraipena.
- Aldaketa metodologikoak.
- Egindako jarduerak (tailerrak, materialak eta abar).
- Espazioetan egindako aldaketak.
- Eraginaren ebaluazioa.

Abiapuntua eta hezkidetzeta-gaien inguruko alde aurreko esperientzia oso desberdinak ziren ikastetxe bakoitzean, eta, beraz, hasiera eta 3 urte hauetan planteatu diren jarduerak askotarikoak izan dira (zenbaitetan espezifikoak), hezkuntza-komunitate bakoitzaren errealitateari jarraikiz.

## **2. Memorien azterketa, atalaren arabera**

### **2.1. Ikastetxeen errealitatearen diagnostikoa eta sentsibilizazio-prozesua.**

Bost ikastetxek diagnostikoari eta sentsibilizazioari lotutako jarduerak egin dituzte.

Oro har, diagnostiko-jarduerak planteatu dira ikasleei, irakasleei eta familiei zuzendutako inkesten bidez, honako gai hauen inguruan zer lehentasun zituzten jakiteko: hizkuntzaren erabilera, espazioen erabilera (patioak eta abar), estereotipoen detekzioa ikasleengan, sexismoaren eta homofobiaren pertzepzioa eta ikasleen arteko harremanen azterketa.

5 ikastetxe horietako batzuetan, testuliburuak eta material didaktikoak (generoaren ikuspuntutik), irakasleek ikasleen inguruan dituzten aurreikuspenak eta ikastetxeren batean gatazkei buruz zeuden datuak (genero-ikuspegian oinarrituta aztertuak) aztertu dira.

Azterketa horien ondorioz, edo diagnostikoa egiteko elementu motibatzaile gisa, sentsibilizazio-saioak egin dira hitzaldien, tailerren (udal-mailan batzuetan) edota hezkuntza-komunitateko kideekin bereiz egindako saioen bidez.

Azterketa horiek baliagarriak izan dira ikastetxeko planak lantzeko, prestakuntzak prestatzeko, protokoloak egiteko, esku-hartze gidak egiteko eta abar.

\*Ez dira kontuan hartu Haur Hezkuntzako ikastetxearen memoriaren ekarpenak, ikastetxeak oso ezaugarri espezifikoak baititu.



## 2.2. Batzordeak eta berdintasuneko eta hezkidetzako arduradunen izendapena

Bederatzi ikastetxeetako zazpi, ikastetxeko hezkidetzako arduradunen eta Ordezkaritza Organo Gorenko berdintasun-arduradunen izendapena aipatu dute, baina, ia seguruenik, ikastetxe guztiek dituzte figura horiek izendatuta.

Bestalde, ikastetxe batzuek adierazi dutenez, berdintasun-arduradun bat izendatu dute ikastetxearen beste esparru batzuetan (jantokia, kirola, aisia eta abar).

Bestalde, lehendik zituzten funtzionamendu-batzordeak baliatu dituzte: Bizikidetzaren Behatokia, Batzorde Pedagogikoa, zuzendaritza-taldeak edo Berdintasun Batzordea. Ikastetxeren batek adierazi du batzordeetan zikloei, familien ordezkariari eta ikasleen ordezkariari indar handiagoa eman diela, eta, zenbait kasutan, batzordeak gizon eta emakume kopuru berdinarekin osatzen saiatu direla (aitak bereziki kontuan hartuta).

Bigarren Hezkuntzako ikastetxe publiko batean, genero-berdintasunari eta indarkeriaren prebentzioari lotutako kanpainak eta jarduera mota oro bultzatzen eta egiten dituen neska talde bat dago, MANDRAKA izenekoa.

## 2.3. Prestakuntza-prozesuak

Ikastetxe gehienek zehaztasun handiagoarekin edo txikiagoarekin aipatu dituzte 3 ikasturteetan egin dituzten prestakuntza-jarduerak, baita nori zuzenduta zeuden ere. Prestakuntza kopurua handia eta askotarikoa izan da.

- **Irakasleei zuzendutako prestakuntzak**

Irakasleei zuzendutako prestakuntzak hezkuntza afektibo-sexualari, eskola mistotik hezkidetzako eskola baterako aldaketari eta beste antzeko gai batzuei buruzkoak izan dira. Ikastetxe bakoitzak adituengana edota hainbat erakundetara jo du. Metodologiak ere askotarikoak izan dira: hitzaldiak, online ikastaroak, solasaldi dialogikoak, mintegiak, bideoak ikustea eta abar.

Zenbait ikastetxetan, oinarrizko prestakuntza bat egin dute irakasle guztientzat, eta, ondoren, gaiaren inguruan ardua-maila handiagoa duten pertsona batzuek (hezkidetzako arduradunek, mintegietakoak eta abar) sakontasun eta dedikazio handiagoko prestakuntzak egin dituzte.

Ikastetxe horiek guztiek Berritzeguneek antolatutako zonako hezkidetzako mintegietan parte hartu dute, eta, hiru hilean behin, Bilboko Berritzegune Nagusiak espezifikoki prestatutako koordinazio-bileretara joan dira.

- **Ikasleei zuzendutako prestakuntzak**

Irakasleei zuzendutako prestakuntzak bezala, ikasleei zuzendutakoak askotarikoak izan dira, eta hainbat pertsonak eta erakundek eman dituzte, askotariko metodologiak erabiliz. Ikastetxe batzuek Lehen Hezkuntzako ikasleentzako *NAHIKO!* proiektuan eta DBHko ikasleentzako *Beldur barik!* proiektuan parte hartu dute, eta haiei lotutako prestakuntza eta materialak jaso dituzte.

Ikastetxe batzuek “hezkuntza afektibo-sexualari” (sexu-aniztasunak, sexu-garapena, sexu-identitateak, harreman afektiboak eta abar) lotutako prestakuntzak aukeratu dituzte, eta beste batzuek “genero-indarkeriaren prebentzioari” buruzko tailerrak antolatu dituzte. Beste ikastetxe batzuek, berriz, honako gai hauei eman diete lehentasuna: bullyngari aurrea hartzeko KIVA metodoa,

“Generoa, zientzia eta teknologia” (neskengan zientziarako bokazioa sustatzeko) eta “LGTB kolektiboa Francoren garaian”.

Askotan, orientazio eta tutoretzako saioak erabili dira prestakuntza egiteko. Adinaren arabera, solasaldi dialogikoak, ipuinak, bideoak, material propioak eta abar erabili dira. Eta ikaskuntza-komunitateak diren ikastetxeetan, hezkuntza-komunitate osoak goiburu bat sortu du (adibidez: “Ez burla ez jo elkarrekin ondo”; “Biolentzia non komunitatea han”; “Indarrak elkartu, borrokkak gelditzeko”; “Hamaika kultura, eskubide berberak”).

- **Familiei zuzendutako prestakuntzak**

Ikastetxeek ongi ulertu dute nekez burutu daitekeela Hezkidetza-proiektu integral bat familiak kontuan hartu gabe. Horretarako, galderak egiteaz eta familien eskari eta kexen aurrean sentikor agertzeaz gain (aurreko puntuan ikusi dugunez), askotariko prestakuntzak antolatu dituzte ordezkaritza-organo goreneta berdintasun-arduradunekin batera, askotariko gaiekin eta metodologia desberdinekin. Halaber, familien proposamenak entzun dituzte, eta hezkidetza-planak aurkeztu dizkiete.

Bi ikastetxek hezkuntza-komunitateko adituak izan dituzte prestakuntzak egiteko.

Honako gai hauek landu dira: matxismoaren identifikazioa (genero-desberdintasunak, hizkuntza, kultura-aurreiritziak, estereotipo negatiboak eta abar), hezkuntza afektibo-sexuala edota genero-indarkeriaren prebentzioari buruzko literatura-solasaldiak edo bideo-forumak (YALE gida, 0 indarkeria 0 urtetik...). Ikastetxeren batean, “Nagore” dokumentala ikusi dute, eta Nagore Laffageren ama (Asun Casasola) eraman dute familiekin solasaldi bat egiteko.

- **Hezkuntza-komunitateko beste pertsona batzuei zuzendutako prestakuntzak**

Adierazi beharra dago ikastetxe gehienek bertako langile guztientzako prestakuntza- edo sensibilizazio-saioak antolatu dituztela (familientzat, irakasleentzat, ikasleentzat, jantokiko langileentzat, kirol-monitoreentzat, eskolaz kanpoko jardueretako monitoreentzat eta abar).

Prestakuntza horiek ikastetxeetako zuzendaritzen eta hezkidetza- eta berdintasun-arduradunen bitartez bideratu dira, batzorde pedagogikoen, bizikidetza-behatokien eta hezkidetza-batzordeen bidez.

## 2.4. Orientazioa eta tutoretza

Zazpi ikastetxek (itunpeko bik eta bost publikok –LHko bik eta DBHko hiruk–) aipatu dituzte alderdi horri lotutako jarduerak beren memoriatan. Adierazi beharra dago ikastetxe bakoitzak era desberdinean bideratu duela tutoretza. Ikastetxe batzuek garrantzi handiagoa eman diote **orientazio akademiko-profesionalari**, eta honako jarduera hauek egin dituzte:

- Genero-ikuspegiarekin egindako orientazio-jardunaldiak eta bisitaldiak (enpresetara edo Miñeon egindako Prestakuntzaren Europako Erakusketara).
- Lehen Hezkuntzako neskengan bokazio zientifiko eta teknologikoa sustatzeko Deustuko Unibertsitateak eta Elhuyar argitaletxeak antolatutako INSPIRA proiektuan (“Generoa, Zientzia eta Teknologia”) parte hartzea.
- DBHko 3. eta 4. mailan lanbide-heziketako eta unibertsitateko hainbat azterlan aztertzeo Berritzeguneak sustatutako “Aurrera” proiektuan (online) parte hartzea.
- Neskek zientziaren eta teknologiaren arloetara jotzeko garaian behar duten norberarenganako konfiantza sustatzeko eta areagotzeko jarduerak (mahai-inguruak, filmak, solasaldiak, erreferentziazko emakumeak ikastetxera eramatea eta abar).

- Orientazio Sailak informazioa emateko garaian ohiko lanbide-ereduak aldatzea, ikasleek lanbideen inguruan dituzten estereotipoak eta beldurrak agerian uztea eta hainbat arlotan arrakasta izan duten emakumeen berri ematea.

DBHko ikastetxe publiko batek estereotipoen eta genero-indarkeriaren inguruko jarduerak planteatu ditu DBHko I. mailatik Batxilergora, euskarako eta tutoretzako orduetan, eta estereotipoak eta abar lantzeko “Ozenki salatu/Denuncia alto” kanpainan parte hartzera animatu du, hainbat bideoren bidez (“Lo que subes no baja”, “No lo digas por Internet”, “Bloquea el acoso en línea”, “Abre los ojos/Begiak ireki” eta “Querido papá me van a llamar perra”). Halaber, Berritzeguneek proposatutako “Hamaika kultura, eskubide berberak” goiburuaren inguruan lan egin dute, eta goiburua propioak sortu dituzte (“8 gezur berdintasunaren inguruan/8 mentiras acerca de la igualdad”).

DBHko beste ikastetxe publiko bateko tutoretza-saioetan landutako beste alderdi bat aniztasun afektibo-sexuala izan da. Horretarako, irakasleek “Hezkidetzak, desberdintasunak landuz” izeneko tailerra egin zuten.

Lehen Hezkuntzako ikastetxe batek eskola-porrota eta familia batzuek seme-alaben inguruan dituzten aurreikuspen txikiak landu ditu nagusiki. Helburu horrekin, erreferentzia izan zitezkeen ijito profesionalak eraman zituen. Beste ikastetxe batek, berriz, talde-kohesioan oinarritu du bere lana, eta INTERED GKEarekin lan egin du irakasleentzako ikastaroetan, baita LHko 6. mailako ikasleekin ere, tratu txarren inguruan.

## 2.5. Hezkuntza-komunitatearekiko harremanak eta giroa

Hezkidetzako ikastetxe integral gehienak kezkatu dira hezkuntza-komunitate osoak (familiak, jantokiko, kirol-arloko edo eskolaz kanpoko jardueretako monitoreak, hainbat ziklotako ikasleak eta abar) proiektuan parte har zezan.

Sentsibilizazio- eta prestakuntza-ikastaroak antolatu dira, eta ikastetxe bakoitzak kolektibo horientzat guztientzat landutako hezkidetzak-planak aurkeztu dira. Bestalde, familien zein ikasleen kexen bilketa sistematizatu da.

Batzordeei eta izendapenei buruzko atalean ikusi dugunez, kasu askotan batzorde mistoak osatu dituzte estamentu guztien eskariak eta/edo premiak eta jarduerak bideratzeko.

Ikastetxeetan indarkeriarik gabeko giroak sortzeko, ikastetxe batek balioetan hezten duen “Zumardi” izeneko zonako kirol-proiektuan parte hartu du.

Halaber, genero-ikuspegia azpimarratu da, eta bizikidetzak-behatokietako gatazkak edota genero-indarkeriako kasuen detekzio goiztiarra aztertu dira.

Ikastetxeek indarkeria-egoerei aurre egiteko egindako jarduketan artean, honako kanpaina hauek aipa daitezke: “Ezetz ezetz da”, “Biolentzia non, komunitate han”, “0 indarkeria 0 urtetik”, “Ez iraindu, ez zait gustatzen”, “Ez burla, ez jo; elkarrekin ondo” eta “Indarrak elkartu, borroak gelditzeko”.

Ikastetxeen errealitateak desberdin samarrak badira ere, esan daiteke adostasuna dagoela harremanak hobetzeko hezkuntza-komunitate osoaren inplikazioa beharrezkoa dela adierazteko garaian.

Ikastetxeren batek biktimak babesteko eta erasotzailea isolatzeko “Ausarten kluba” izeneko teknika edo estrategia erabili du. Bestalde, ikastetxe batek hezkuntza-komunitate osoarekin egin duen

“Isiltasunarekin amaitzea” izeneko kanpaina azaldu du. Kanpaina egiteko, ipuinak, kartelak eta beste baliabide batzuk erabili dira, eta honako premisa hau ezarri da: “eraso baten aurrean isilik geratu ordez salatzen dena ez da salatari bat, lagun ona baizik”. Horretarako, pertsona helduak prestatu dituzte bereziki, haien pentsaera aldatzeko.

Talde interaktiboen, solasaldi dialogikoen, goiburuen eta abarren bidez egiten den lana ikaskuntza-komunitateak diren ikastetxeetan egin da batez ere.

## 2.6. Protokoloen lanketa eta jarraipena

Dauden protokoloak ezagutzera emateaz eta aplikatzeaz gain (ikasle transentzako protokoloa, bullyingari aurre egiteko protokoloa eta abar), protokolo propioak landu dituztela adierazi dute ikastetxe batzuek (espazioak erabiltzeko, adibidez). Ikastetxeren batek azaldu du udalerrian emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiteko dagoen protokolo bat erabili duela eta udalbatzordeetan parte hartu duela.

Beste batzuek adierazi dutenez, ikasgeletan indarkeriari aurrea hartzeko ekintza espezifikokoak jarri dituzte abian (adibidez, irakasle bat ez da ikasgelatik irteten hurrengo iritsi arte), edota indarkeriaren prebentziorako dekalogoak, gidak edo barne-araudiak jarri dituzte abian, hezkuntza-komunitate osoa indarkeriaren –oro har– eta genero-indarkeriaren –bereziki– prebentzioran inplikatzen helburuarekin.

## 2.7. Aldaketa metodologikoak

Bi ikastetxe publikok baino ez dute aipatu beren memorian aldaketa metodologikoak edo eduki-aldaketak egin dituztela irakasgaietan.

Ikastetxeetako batek adierazi du mintegi guztietan hezkuntza afektibo-sexuala lantzeko helburua ezarri duela, unitate didaktiko bat zehaztu ahal izateko, jakintzagai edo arlo bakoitza kontuan hartuta. Bestalde, testuliburuak berdintasunaren ikuspegian oinarrituta aukeratzeko eta programazioetan emakumeek zientzia-arloan edo literatura-arloan egindako ekarpenak txertatzeko konpromisoa lortu nahi izan dute.

Ikastetxeek jakintzagai guztietan eta DBHko eta Batxilergoko maila guztietan egindako jarduerak guztiak jaso dituzte beren memorian: filmak eta bideoak ikustea, museoetara egindako bisitaldiak, obren azterketak, lehiaketak eta gorputz-hezkuntzako metodologia inklusiboak.

## 2.8. Egindako jarduerak (tailerrak, materialen sorkuntza...)

Ikastetxeek sortu dituzten jarduerak asko ikasturte osoan egin dira, hainbat maila eta jakintzagaitan. Ikastetxe batzuek orientazio- eta tutoretza-saiok baliatu dituzte bereziki gai horiek lantzeko, eta beste batzuk gai horiek arlo guztietako curriculumean txertatzen saiatu dira. Horretarako, planteamendu sistematiko eta integral bat egin dute ikasle guztiarekin eta hezkuntza-komunitatearekin. Azpimarratu beharra dago, halaber, ikastetxe gehienek data enblematikoak baliatu dituztela hezkidetzak-jarduerak antolatzen. Adibidez, honako egun hauek baliatu dituzte: **azaroaren 25a** (Emakumeenganako Indarkeriaren aurkako Nazioarteko Eguna); **martxoaren 8a** (Emakumeen Nazioarteko Eguna); **maiatzaren 27a** (Homofobiaren aurkako Nazioarteko Eguna) eta **ekainaren 28a** (LGTBI Harrotasunaren Nazioarteko Eguna).

Sortutako jarduerak askotarikoak eta sormen handikoak izan dira:

- Ikastetxeko idatzizko zein hitzezko dokumentu eta komunikazio guztietan hizkuntza ez-sexista eta inklusiboa erabiltzea.
- Curriculum guztietan (Zientziak, Fisika eta Kimika, Biologia, Matematika, Historia, Literatura...) emakumeen ekarpena txertatzea.
- Testuliburuak eta curriculum-materialak hautatzean hezkidetzaren irizpideak aplikatzea.
- Tailerrak antolatzea eta, hautatzean eta parte hartzean, joera estereotipatuak apurtzen saiatzea (talde mistoak, nesken ordezkariak handiagoa eta abar).
- Hezkuntza-tailerrak egitea.
- Berdintasunari buruzko ipuinak kontatzea.
- Hezkuntza afektibo-sexualeko tailerrak: "Hezkidetzaren desberdintasunak landuz".
- Genero-indarkeriaren prebentziorako saioak.
- Ikastetxeko gune komunean berdintasunari lotutako gaiak agerian jartzea. Ikastetxeko gune komunean "Berdingune" edo "Txoko more" bat sortzea berdintasunari buruzko informazioa emateko, edota "puntu lila erraldoia" arlo artistikoan.
- Protokoloak egitea.
- Hezkidetzaren astea.
- Ikastetxeko jardueren guztietan "betaurreko moreak" ipintzea.
- Unitate didaktiko espezifikoak sortzea.
- Genero-ikuspegia ikastetxeko mintegi guztietan txertatzea.
- Liburutegirako hezkidetzari eta sexualitateari buruzko liburuak erostea.
- Ikasleek sexualitateari buruz dituzten eta aholkularitza behar duten galderak egiteko postontzi bat sortzea.
- Ziberbullyngari aurrea hartzeko bideoak ikusteko aukera lantzea.
- Homofobiaren aurkako kanpainak.
- "Berdintasunaren busarekin" photocall bat egitea.
- Berdintasunaren inguruko filmak ikustea, hainbat hizkuntzatan (ingelesez, frantsesez, gaztelaniaz, euskaraz...).
- Berdintasunaren inguruko lehiaketa mistoak.
- Familia-ereduen, sexu-identitateen eta abarren aniztasuna islatzen duten materialak erabiltzea.
- Hezkidetzaren hiztegiak, prentsan argitaratutako artikuluak eta abar.
- Hezkidetzari lotutako ikastetxetik kanpoko lehiaketetan eta sarietan parte hartzea.
- Ikastetxeaz bestelako erakundeekin lankidetzan jardutea, ikasleek kaleko hezitzaileekin erabiltzen dituzten espazio formalak eta ez-formalak koordinatzeko (Adibidez: "Hamabi hodei").
- Film labur bat egitea.
- "Ausarten kluba" sortzea ("Ezetz ezetz da", "Maite nautenek ongi tratatzen naute" ...).
- Euskal emakume batzuen bizitza ezagutaraztea: Bizenta Mogel (euskaraz idatzi zuen lehen emakumea) eta Eulalia Abaitua (Euskadiko lehen emakume argazkilaria).
- Kit-Caixa izenekoaren erabilera (identitatea, erantzukizuna eta bizikidetzaren lantzeko Caixaren materiala).
- Udalerriko Emakume Sortzaileen Lehen Azokan parte hartzea.
- Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak ematen duen "Gune Anitza Zigiluaren" lorpena.
- "Me di cuenta de lo que me pasaba" bideoa ikustea, transexualitatea lantzeko.
- Mikromatxismoak lantzeko bideoak ikustea.
- "Korrika more kulturalen" parte hartzea.
- "Kultura-aniztasunaren" eguna garatzea, 4 esparrutan (hizkuntza, musika/dantza, ohiturak eta gastronomia).
- Hainbat jardueraren bidez, egun seinalatuak ospatzea: azaroaren 25a, martxoaren 8a, maiatzaren 17a eta ekainaren 28a.

## 2.9. Espazioetan egindako aldaketak

Lehen Hezkuntzako eta DBHko bederatzi ikastetxeetako seik adierazi dute denbora jakin bat eman dutela patioen eta haien erabileraren inguruko gogoeta egiten eta erabakiak hartzen.

Ikastetxe batek adierazi duenez, hezkuntza-komunitate osoa inplikatu du patioen inguruko gogoetan, eta, geroago, “Designforchange” metodologiaren bidez, egin beharreko aldaketei buruzko erabakiak hartu dituzte ikasleek. Ondoren, erabaki horiek zuzendaritza-taldeari aurkeztu dizkiote.

Bi ikastetxek beren patioak eraldatu dituzte ELKARTOKI proiektuaren bidez.<sup>9</sup>

Ikastetxe batzuek adierazi dute patioen erabilerari lotutako ekimenak planteatu dituztela, baina ez direla atera espero bezain ongi.

Ikastetxe batzuk neskek kirol-jardueretan parte hartzeaz kezkatu dira bereziki.

## 2.10. Eraginaren ebaluazioa

Espero zitekeenez, hezkidetzaz-zentro integrala izatearen esperientziak izan duen eragina aztertu du ikastetxe bakoitzak, bere errealitatetik abiatuta.

Oro har, gogobetetze-maila handia izan da, esperientzia baliagarria izan baita hezkuntza-komunitatea genero-berdintasunean eta indarkeriaren prebentzioan sensibilizatzen hasteko edo jarraitzeko. Denek adierazi dutenez, bide horretan sartuz gero, ez dago gelditzerik. Neurri handiagoan edo txikiagoan, aurrerapenak egin dira. Ikastetxeek “txipa” edo ikuspegia aldatu dute arazoak (eta bereziki indarkeriari lotutakoak) bideratzeko garaian. Prestakuntzen bidez, oro har, hezkuntza-komunitatearen inplikazio eta koordinazio handiagoa lortu da ikasleei mezu berak bidaltzeko, erabakiak hartzeko eta gatazkak konpontzeko.

Ikastetxeren batek adierazi du “hezkidetzaz ikastetxearen bizitzaren parte bihurtu dela”. Beste batek adierazi duenez, familiek seme-alaben hezkuntzaren inguruan zituzten aurreikuspenak hobetzea, arazoak arinki ez hartzea, talde-kontzientzia hartzea eta biktimak babestea lortu du (*ikastetxe PUB-LHI-M*). Komunitate osoak ezagutzen ditu eraso bati aurre egiteko eta bizikidetzaz sustatzeko era egokiak.

Azkenik, Gabriel Aresti BHLak Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak ematen duen **Gune Anitza Zigilua** lortu du.

Gainera, Lekeitio HLHIa ikastetxe prestatzaile bihurtu da Partekatuz Ikasi proiektuan.

---

<sup>9</sup>Elkartoki [TIP](#) kooperatibak (arkitekturaren eta komunikazioaren munduko 4 emakume profesionalak) bultzatzen duen eta eskoletako patioetan egiten den programa bat da. Elkartokin, ikasleek obrak, tresnak edo esku-hartzeak asmatzen eta egiten dituzte, patioen espazioan eta haren erabileretan eta dinamiketan eragiteko asmoarekin. **Programak patioa aztertzea, hari buruzko gogoeta egitea eta fisikoki eraldatzeko esku-hartzeak imajinatzea proposatzen du**, eta eskola-komunitatea –eta, zehazki, ikasleak– izango dira sorkuntza-prozesuaren ardatzak. Diseinua pertsonen bizi-baldintzak hobetuko dituzten eta haien gaitasunak eta trebetasunak sustatuko dituzten soluzioak sortzeko tresnatzat hartzen da. Lurraldeekin, erakundeekin eta pertsonekin lan egiten dute eredu eta eskema konbentzionalak eraldatzeko proiektuetan.

## Erreferentziak

- EMAKUNDE (2013): Adierazle-sistema. EAEko emakumeen eta gizonen berdintasuna. Sistema de indicadores. Igualdad mujeres y hombres en la CAE [https://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/publicaciones/guias2/es\\_emakunde/adjuntos/guia\\_indicadores.pdf](https://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/publicaciones/guias2/es_emakunde/adjuntos/guia_indicadores.pdf)
- EMAKUNDE (2018): EAE-ko emakumeen eta gizonen berdintasunerako VII. Plana. [https://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/emakunde7plana/eu\\_def/adjuntos/vii\\_plana.pdf](https://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/emakunde7plana/eu_def/adjuntos/vii_plana.pdf)
- European Commission (2018): Report on equality between women and men in the EU 2018 <https://publications.europa.eu/en/publication-detail/-/publication/950dce57-6222-11e8-ab9c-01aa75ed71a1/language-en>.
- EUSTAT (2019): Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna Euskal Autonomia Erkidegoan, 2019. <https://eu.eustat.eus/berdintasuna/2019/index.html>.
- Hezkuntza Saila/Departamento de Educación del Gobierno Vasco (2019): EAE-ko hezkuntza-sistamarako II. hezkidetza-plana, berdintasunaren eta tratu onaren bidean 2019-2023 = II Plan de coeducación para el sistema educativo vasco, en el camino hacia la igualdad y el buen trato 2019-2023 [https://www.euskadi.eus/web01a2aznscp/eu/k75aWebPublicacionesWar/k75aObtenerPublicacionDigitalServlet?R01HNoPortal=true&N\\_LIBR=052381&N\\_EDIC=0001&C\\_IDIOM=eu&FOR\\_MATO=.pdf](https://www.euskadi.eus/web01a2aznscp/eu/k75aWebPublicacionesWar/k75aObtenerPublicacionDigitalServlet?R01HNoPortal=true&N_LIBR=052381&N_EDIC=0001&C_IDIOM=eu&FOR_MATO=.pdf)
- Hezkuntza Saila: Eskola jazarpena prebenitzeko probentzia <https://bizikasi.euskadi.eus/eu/acoso-escolar>.
- ISEI-IVEI Ikaskideen arteko tratu txarrak: <https://isei-ivei.hezkuntza.net/eu/maltrato-entre-iguales-bullying>
- ISEI-IVEI (2017): Genero-berdintasuna Lehen hezkuntzan eta DBH-n Euskadin: <https://isei-ivei.hezkuntza.net/eu/generoa>.
- 4/2005 LEGEA, otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa (EHAA, 2005eko martxoak 2, asteazkenean publikatutakoa). <https://www.euskadi.eus/bopv2/datos/2005/03/0500982a.pdf>
- Ministerio de igualdad (2020). XI informe Anual del Observatorio Estatal de Violencia sobre la Mujer 2017. [https://violenciagenero.igualdad.gob.es/violenciaEnCifras/observatorio/informesAnuales/informes/XI\\_Informe2017\\_Capitulos.htm](https://violenciagenero.igualdad.gob.es/violenciaEnCifras/observatorio/informesAnuales/informes/XI_Informe2017_Capitulos.htm)
- Ministerio de Igualdad (2021): Índice Europeo de igualdad de Género 2020. <https://www.inmujeres.gob.es/actualidad/noticias/2020/Octubre/indiceeuropeoigualdad.htm>
- ONU Mujeres (2018) Hacer promesas realidad: la igualdad de género en la Agenda 2030 para el desarrollo Sostenible. <https://www.unwomen.org/es/digital-library/publications/2018/2/gender-equality-in-the-2030-agenda-for-sustainable-development-2018#view>.
- PISA in Focus 90. ¿Cómo enseñan las ciencias los docentes... y qué importancia tiene? [https://sede.educacion.gob.es/publiventa/descarga.action?f\\_codigo\\_agc=21563](https://sede.educacion.gob.es/publiventa/descarga.action?f_codigo_agc=21563)
- PISA in Focus 92 (2018). ¿Cómo se relaciona la motivación con el rendimiento y la ansiedad del alumnado? [https://sede.educacion.gob.es/publiventa/descarga.action?f\\_codigo\\_agc=21565](https://sede.educacion.gob.es/publiventa/descarga.action?f_codigo_agc=21565)
- PISA in Focus 93 (2018). ¿Por qué no hay más chicas que decidan emprender carreras profesionales de ciencias? [https://sede.educacion.gob.es/publiventa/descarga.action?f\\_codigo\\_agc=21566](https://sede.educacion.gob.es/publiventa/descarga.action?f_codigo_agc=21566)

- PISA in focus 105 (2019). ¿Tienen los chicos y las chicas actitudes similares hacia la competitividad y el fracaso?  
[https://sede.educacion.gob.es/publiventa/descarga.action?f\\_codigo\\_agc=21586](https://sede.educacion.gob.es/publiventa/descarga.action?f_codigo_agc=21586)
- PISA in Focus (2020): Do girls and boys engage with global and intercultural issues differently?  
<https://www.oecd-ilibrary.org/docserver/9a52e7dd-en.pdf?expires=1619782063&id=id&accname=guest&checksum=F61A8669C48F7FF7674269CCBBEF9919>
- Pérez Vallejo, Ana María (2019): Ciberacoso sexualizado y ciberviolencia de género en adolescentes. Nuevo marco regulador para un abordaje integral.  
<file:///C:/Users/BEGOA~1/AppData/Local/Temp/Dialnet-CiberacosoSexualizadoYCiberviolenciaDeGeneroEnAdol-7219560.pdf>
- Save the Children (2019) Indarkeri birala: Ingurune digitalean hurrek eta nerabeek sufritzen duten indakeriaren azterketa  
[https://www.savethechildren.es/sites/default/files/imce/indarkeri\\_birala\\_eus\\_violencia\\_viral\\_eurkera.pdf](https://www.savethechildren.es/sites/default/files/imce/indarkeri_birala_eus_violencia_viral_eurkera.pdf)
- UNESCO (2015): UNESCO y los Objetivos del desarrollo Sostenible.  
<https://es.unesco.org/sdgs>.